

Berrigara




Bidea errazten

Bergarako Gazte Informazio Gunea

MARKIEGI
autoak

Leizeaga 1 (S. Lorentzo Industri Poligonoa)
BERGARA Tf. 943 76 35 09 Faxe 943 76 56 76



FIAT PUNTO BERRIA.

**ZATOZ MARKIEGIRA
ETA EZAGUTU
AUTO ESPEZIE
BERRIA.**

Renaultek zorte ona dakar Debagoienera

Renaulten IAT/ITV-aurreko komunikazio akzioak Josu Toledori ekarri ditio zortea notari aurrean egindako zozketan:

300.000

pezetako bidaia-txekea. Saria, Arrasateko Renaulten Meca kontzesionarioko Yolanda Bujandak eman zion.



RENAULT

MECA BERGARA

Amillaga 5. BERGARA. Tf. 943 76 40 68

deco-tex ZANGUITU alfonbrak



Etxerako osagarri guztiak:

- Alfonbrak
- Edredoiak
- Funda nordikoak
- Kortinak
- Toailak
- Izarak



Herri lagunak 4.
Tf. 943 76 08 69



Asis Iriondo / Irakaslea

(Heda)bide berrien alde

Otsailaren 27an hiru egunkari ez erosteko deia egin dute hainbat pertsonak. Ez da hedabide batzuen aurka egin den lehenengo ekintza eta, seguraski, ez da azkena izango. Oraingoan arrazoi nagusiak errealitatea desitxuratzea eta talde askoren ahotsa isilaraztea dugu.

Gaur egungo hedabideen eragina izugarria da, botere handiko mamuak dira, gero eta enpresa gutxiagoren menpe daude. Zein da hedabideen betebeharra? Zergatik pilatu dituzte hainbeste irriti, egunkari... enpresa gutxi batzuek? Inork sinisten du informazioa ematea baino ez dutela helburu? Informazioaren moztarpean interes asko dituzte, hemen, hor eta han.

Euskal Herrian bizi dugun egoeran ere, txakurrak oinutsik. Garbi dago hedabide bakoitzaren atzean helburu batzuk daudela eta egungo egoeran zein egunkarik edo irratik egiten duen prozesu "berri" bat aurrera eramatearen alde eta zeinek aurka. Hori askatasuna ei da, gure esku ei dago nahi duguna ikusi, entzun edo irakurtzea, baina nik

neuk ez dut uste nahikoa denik esatea gizartea anitza dela edo iritzi asko dugu eta herritarrok badakigula zer egiten dugun.

Jakina, bakoitzak egin dezala nahi duena! Baina gauzen berri jakiteko, horien berri eman behar da. Nork eman du eta nola, adibidez, asteburuan elkartu ziren herri-mugimenduen berri? Zergatik izkututzen dira Euskal Herrian egiten diren hainbat ekitaldi? Ba al dago izaterik hedabideetan azaldu barik?

Baina bada gauza harriagorik! Berragan gehien saltzen den egunkariak

"Nork eman du eta nola, adibidez, asteburuan elkartu ziren herri-mugimenduen berri? Zergatik izkututzen dira Euskal Herrian egiten diren hainbat ekitaldi?"

1.774 ale sartzen ditu herriko etxeetan, bigarrenak 354 eta hirugarrenak 168; hauteskundeetan, berriz, denok ezagutzen ditugun emaitzak, egunkari salduenak "saltzen" duen Euskal Herriko ikuspuntutik urruti edo benetan urruti dauden alderdiak nagusi. Zergatik ez dator bat herritar askoren nahia eta gehien saltzen den egunkariaren ildo? Irakurle askoren ustez, eskelek, Bergarako kartiak eta kirolak garrantzi handia dute. Eta horrekin batera, egunero-egunero, askotan gu konturatu barik, "sartzen" dizkigutenak? Hau da marka, gero! (dena den, "Marca"rik gabe, askoz hobe).

Otsailaren 27an, domekan, aukera dugu nahi duguna egiteko, hauteskunde garaiotan hainbestetan aipatzen den gogoeta egiteko ere bai. Merkatuan badugu zer erosi. Aspaldiko iragarkiak zioen bezala, bilatu, alderatu eta ezer hoberik aurkituz gero, erosi. Honaino heldu bazara irakurle sufritu hori, domekan zer erosiko dudan kontatuko dizut: euskaraz kaleratzen duten Euskaldunon Egunkaria.<

barruan



Jose Angel Mikeo

Jarduneko presidentea

"Goiena, bailarako osotasunezko eskaintza emateko komunikazio zentrua da"

8.



Aitor Delariberette

Snowboardzalea

"Selekzioarekin, Austrian, bigarren geratu nintzen junior mailako proban"

23.



Xabier Alberdi

Bolu gimnasiokoa

"Ni beti izan naiz kirolzalia: mendixan, piraguan, eskiatzen... ibilittakua naiz"

29.

Farmaziak

Eguakitza 25:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Zapatua 26:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Domeka 27:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Astelehena 28:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Martitzena 29:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguaztena 1

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguena 2:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Ogia

Domeka 27: Konde.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 18

3-32-33-36-41-42 (osag.22/itz.2)

Astelehena 21

9-17-41-43-44-46 (osag.11/itz.8)

Martitzena 22

4-10-17-19-28-38 (osag.25/itz.8)

Eguaztena 23

3-9-10-31-38-39 (osag.18/itz.8)

PRIMITIVA

Zapatua 19

15-31-32-35-38-44 (osag.30/itz.4)

Domeka 20 Saritzarra

30-34-38-44-47-48 (osag.33/itz.9)

ONCE

Eguakitza 18: 45.575 (036 seriea)

Domeka 20: 94.126 (003 seriea)

Astelehena 21: 11.911

Martitzena 22: 87.734

Eguaztena 23: 77.803

BESTE BATZUK

Bergarara Plataformaren

mariskada: 791

hau be badou?

Telebista begietan

Sony-k oraintxe aurkeztu ditu Glasstron Personal betaurrekoak. Eurekin telebista ikus daiteke eta stereoan entzun! Kolore biziak, pisurik gabekoa... 500 dolar ordainduta eros daiteke. Begientzat arriskutsua izan daitekeela eta, hiru ordutik gora ezin da ikusi. *Elhuyar*


Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatua 26

Zerua garbi antzean izango du. Goizean, lanbroa. Tenperaturak gora egingo du. Hegoekialdeko haizeak joko du leun.



Domeka 27

Aldika-aldika hodei gune handiak agertuko dira zeruan. Goizaldean, lanbroa. Tenperaturak zapatuan bezalatsu. Hegoaizea.

Ilargiaren aldiak



Ilbehera: otsailak 27



Ilberri: martxoak 6




Ilgora: martxoak 13




Ilbete: martxoak 20

Eguzkia

Domeka, otsailak 27



Sortu: 07:55



Gorde: 19:05

Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 17	8	5,5	25,8	12	8	54,2
Eguakitza 18	9	7,5	-	12	11	0,5
Zapatua 19	7	6	6,4	12	10	6,9
Domeka 20	7	4	-	12	7	-
Astelehena 21	8	1	-	13	0	-
Martitzena 22	8	1,5	3,2	9	0	1,4
Eguaztena 23	8	1,5	14,1	11	5	12,1

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Matraka, matrakia

Neskatala bihurri eta geldi egon ezin dena.

- Len formala zan baiña matraka majua eindda dago!

-Ume denporia?

Matraka galantak giñala, amen, eskolan.



JOSU OKINA

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanşa)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

jaiotakoak

BERGARA

Saioa Galarraga Pardina

Otsailak 13

hildakoak

BERGARA

Kandida Zornoza Aletxa

Otsailak 17, 67 urte

Isabel Larrañaga Gabilondo

Otsailak 23, 86 urte

zorion agurrak



Jose Mari Lenisero
27an 44 urte.
Urte askotarako!
Hodei eta Aitzol



Juanito Lete
28an 56 urte.
Urte askotarako!
Hodei, Aitzol, Irati eta ilobak.



Maialen Catalina
26an 2 urte.
Urte askotarako!
Osaba-izebak eta lehengusina.



Aritz Rezusta
28an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak; batez ere, Beñat.



Maddi Elortza
29an 4 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Amaia.



Jose Felix de Benito
29an 40 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Felix Ormazabal
26an 89 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta Nerea.



Andoni Zabalo
27an 7 urte.
Urte askotarako!
Aitona-amonak.



Gorka Agirrezabal
2an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Elaia Inurrategi
25ean 16 urte.
Urte askotarako!
Aitzol, Maialen eta Irati.



Nerea Nuñez
2an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Maite.



Laia Bernues
28an 2 urte.
Urte askotarako!
Lehengusua.



Asier Lenisero
26an 25 urte.
Urte askotarako!
Hodei, Irati eta Aitzol lehengusua.



Ladis Perez
25ean 43 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Eneko Unamuno
2an 10 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Aitor Narbaez
2an 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Iker.



Nere Zurro
26an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Erroxe Etxabarri
28an 3 urte. Urte askotarako!
Aitatxo, amatxo, Alazne eta familiakoak.



Arantazu Mujika
25ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Beñat eta Aiora eta lagunak.



Irene Larrañaga
26an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Mikel.



Ander Aristi
28an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Daniel Encabo
27an 13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Manex Goiti
27an 5 urte.
Urte askotarako!
Ismene, amatxo eta aitatxo.



Pello Etxaniz
26an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Juan Mari Igarza
26an 39 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ibai Gonzalez
27an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




Monse Alonso
27an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.

URTEURRENA

Francisca eta Bonifazio Aranzabal Laskurain



Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 27, goizeko 11:00etan, Angiozarko San Migel elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Kandida Zornoza Aletxa

Bergaran hil zen 2000ko otsailaren 17an, 67 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Pedro Jose Alkorta Mujika

Bergaran hil zen 2000ko otsailaren 15ean, 79 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko sendikoen izenean.

Hurrengo alean, **martxoaren 3a eta 9a** bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu.

ANTZERKIA

► **Fabrica de Teatro Imaginario** taldearen "8 olivettis poéticos" gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrioko Arriolan.

► **Idoia Sanchez**en eskutik, "Yo no soy esa" kafe antzerkia domekan 21:30etan Soralezuko Gaztelupen.

MUSIKA

► Go-Jam. **Lin Ton Taun** gaur, eguakitza, 22:00etan.

► **Kantautore jaialdia** bihar, zapatua, gauerdian Elorrioko Ateneoan: **David Duran eta Maribel Cagigal, Ibon Salaberria, Petti eta Javier Sun.**

► **Secundino Esnaola** Zumarraga-Urretxuko eskolako-en kontzertua datorren eguakitzean, hilak 3, 18:00etan Musika Eskolako aretoan.

ERAKUSKETAK

► **Islada** bideo tailerraren emanaldiak Kultur Etxean. Martitzenean, hilak 29, "Elosu-Plazentzia: eremu megalitiarra" (Amaia Labaien), 20:00etan; eguaztenean, martxoak 1, hainbat egileren lanak 20:00etan eta eguenean, 19:00etan, "40 ezetz" (Asier Altuna eta Telmo Esnal), "Haragia" (Begoña Vicario) eta "Adar bakar" (Koldo Almandoz).

KONTZERTUA

Pennywisse

Non: Jam aretoan
Noiz: bihar, zapatua, 21:00etan
Sarrera: 2.500 PTA. 2.800 PTA takilan

Hardcore estiloa jorratzen duen Pennywisse talde estatubatuarrek kontzertua eskainiko du bihar gauean Jam-en. Kaliforniarrena talde beteteranoa dugu, dagoeneko 12 urte bete baitira taldea sortu zenetik. Beti ere, zuzeneko emanaldietan indar berezia dutela erakutsi dute eta "Straight ahead" beraien azken diskoarekin oraindik ere sasoi onean direla azaldu dute, kritikak zein bere zaletuek harrera beroa eskaini baitiote aipatutako lanari. Hain zuzen ere, Pennywisse taldearen lanik gogorenetakoa dugu azken diskoa kritikaren iritziz. Aurretik beste hainbat lan plazaratu izan dituzte, besteak beste, "Word from the Wise/Wild Card" (1989), "Pennywise" (1991), "Unknown road" (93), "About time" (95) edota "Full circle" (1997).

Jason Mathew Thirsk taldeko sortzailetako bat 1996an hil ondoren, gaur egun Jim Lindberg (kantaria), Fletcher Dragge (kitarra), Byron McMackin (bateria) eta Randy Bradburyk (baxua) osatzen dute taldea. Thirsk heriotzaren ondorioz kale-ratutako "Full circle" diskoa izan da da taldearen lanik salduena eta pertsonalena aldi berean. Oraintsu, berriz, kutsu soziala duten abestiak jorratu dituzte "Straight ahead" diskoan eta bihar lan horretako kantuak zein bere abesti ezagunenak aurkeztuko dituzte. Bergarako kontzertuaren ostean, domekan Madrilen eta astelehenean Bartzelonako Zeleste kontzertu aretoan izango dira amerikarrak. Teloneroak Beatsteaks eta Heideroosjes taldeak izango dira biharko kontzertuan.



Argazkian, Pennywisse taldeko kideak.

► **Susana Gomez**en oleoak Nahikarin martxoaren 3ra arte.

► **Benito Cantero**ren argazkiak Donostiako Caravanseria kafetegian (San Bartolome, 1).

► **"Bergarako rocka: bi hamarkada eta arazo bera"**

argazki erakusketa Pol-Poleko aretoan otsailaren 28tik martxoaren 5era bitartean.

► **"Sahara. Askatasunaren basamortua"** argazki erakusketa Zumaiako Oxford erakusketa aretoan (Erribera kalea, z/g), martxoaren 12ra arte.

LEHIAKETAK

► **Gazte Informazio Gunea** iragartzeko kartel lehiaketa, 15 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Lanak aurkezteko epea martxoaren 11n bukatuko da. Irabazleak 50.000 pezeta

FRONTOI

TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

PISZINETAKO TABERNA

**Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak**

Boni Laskurain z/g
Tf. 943 76 53 55

eskuratuko ditu. Argibideak: 943 77 91 57.

► **Gerriko Ikerlan Sariketa.** Ikerlanaren gaia Goierri dago-kion edozein zientzi alorreko izan daiteke eta lanak jasotzeko epea martxoaren 17an bukatuko da. 943 16 02 82.

IKASTAROAK

► **Moises Aspiazu** dantza taldea. Helduei zuzendutako arin-arin eta fandango ikastaroak zapatu goizetan. Argibideak: 943 76 15 40.

► **Euskal dantzen eta Karibeko dantzen** ikastaroak, Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak antolatuta. Argibideak 943 77 00 65 telefonoan.

DEIAK

► **EAJ.** Martxoaren 12ko hauteskundeetan botoa korreoan eman nahi dutenentzat Batzokian bulegoa zabalik izango da astelehenerik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara. Argibideak 943 76 47 00 zenbakian. Bestalde, astelehenean, hilak 28, ekitaldi politikoa izango da 20:00etan Arrasateko Amaia antzokian, J.J. Gonzalez de Txabarri, Joseba Egibar eta Xabier Arzalluzen partaidetzarekin.

► **EA.** Martxoaren 12ko hauteskundeetan botoa korreoan eman nahi dutenentzat Alkartetxean (Barrenkale, 18)

bulegoa zabalik izango da, goizez 11etatik 12etara eta arratsaldez 18:00etatik 20:00etara.

► **Bergarako Orfeoia**ren urteko batzar nagusia martitzenean, hilak 29, 21:15etan Zabalotegiko aretoan.

OHARRAK

► **Udalak** gogorarazten duenez, trasteak biltzeko kamioia hileko lehen eguaztenean pasatzen da. Beraz, trasteak martitzen gauean laga beharko dira betiko tokietan.

► **Iraskuntza euskaldunaren** aldeko bizikleta martxa bihar, zapatua, 12:30etan San Martin Plazan, Denon Eskola, EHE, Ikasle Abertzaleak, LAB eta STEE-EILASek deituta.

► **Euskal presoak Euskal Herrira** taldeak dei egiten die taldean parte hartzeko interesatuei, martitzeneko 20:00etan Kultur Etxean egiten den bile-ran agertzeko.

KINTADAK

► **1975ean** jaiotakoek bazkaria Zabala jatetxean martxoaren 11n. Izen-ematea (3.000 PTA) Kutzako kontuan otsailaren 29ra arte (0122922040).

► **1936ean** jaiotakoek eguna maiatzaren 6an ospatzeko zen aurten, baina datorren urtera arte atzeratzea erabaki da, 65. urteurrenarekin bat egiteko.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Sleepy Hollow

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

El gigante de hierro

Zapatua eta domeka: 17:00.

Tres estaciones

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Un marido ideal

Eguakitza: 22:00.

Los teleñecos en el espacio

Zapatua eta domeka: 17:00.

Las cenizas de Angela

Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka: 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Amaia

Under the sun

Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga

La Playa

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Segunda piel

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

Limbo

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ELORRIO. Arriola

Ana y el rey

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Mystery man

Domeka: 17:00.

La manzana

Eguena, zine-kluba: 20:00.

SLEEPY HOLLOW

Zuzendaria: Tim Burton.

Aktoreak: Johnny Deep, Christina Ricci. ≥13 urte

Washington Irving idazlearen kontakizun batean oinarrituta, Tim Burton zuzendariak (*Eduardo Manostijeras, Ed Wood*) 1799. urteko Estatu Batuetan girotutako filme fantastikoa egin du, beldurra eta umorea uztartuz. Ikertzaile bat (Johnny Deep) *Sleepy Hollow* izeneko herrira joango da bururik gabeko zaldun batek egindako hilketak argitzeko asmoz...

EL GIGANTE DE HIERRO

Zuzendaria: Brad Bird.

Adin guztiak

Gaztetxoei zuzendutako marrazki bizidunetako filmea. 1957. urtean ipamerikarren eta sobietarren arteko erlazioak ez zeuden bere punturik onenean eta *Rockell* herriko bizilagunak eraso baten bildur ziren. Baina burdinezko erraldoi batek laguntza eskainiko die...

TRES ESTACIONES

Zuzendaria: Tony Bui.

Aktoreak: Don Duong, Zoe Bui, Harvey Keitel. ≥18 urte

Iazko Sundanceko Zine Jaialdian Epaimahaiaren Sari Nagusia eta Publikoaren Saria eskuratu zituen filme honek. Tony Bui zuzendariak hainbat langileren egoera eta ametsen inguruko erreflexioa planteatzen digu, filmeak ipuin poetiko baten itxura hartzen duela-rik.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

SANTOS

IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

Pasa den ostegunean Jardunek ez-ohiko batzarra izan zuen. Bertan Goienari buruzko lau erabaki hartu ziren. Zer da, baina, Goiena eta zer zerikusi du Jardunekin eta orohar euskara elkarteekin? Jose Angel Mikeok argitu dizkigu galderok.

G. Zein erabaki hartu dituzue batzarrean?

E. Lau. Bata, Goiena proiektuan partehartzea izan da; bigarrena, Jardunek elkarte gisa Goienarako ekarpena egitea; hirugarrena, Jarduneko bazkideei Goienarako bi mila pezeta-ko borondatezko ekarpena egitea eskatzea eta laugarrena, akordio hau gauzatzeko beharrezko diren dokumentuak sinatzea.

G. Zer da Goiena?

E. Jendearengana telebista bezala heldu bada ere, hau delako erakargarriena eta hasiera batean gehien igarriko dena, hori baino gehiago da. Goiena komunikazio arloan gure eskualderako, Debagoienerako, osotasunezko eskaintza eman nahi duen komunikazio zentroa da.

Hartuko dituen arloak, hainbat dira: batetik, telebistarena; bestetik, bailara mailako astekari baten proiektua ere aztertzeke dago eta poliki-poliki egunkari bat kaleratzeko asmoa ere landuko litzateke.

Horrez gain, gaur egun garrantzia handia hartzen doan telematikaren mundua ere hartuko du.


Azken batean, Goiena oso egitasmu zabala da, komunikazio arloa bere osotasunean hartu nahi duena eta euskaraz eskaini.

G. Zein onura ekar liezaioke Bergarari?

E. Herriko mugak gainditu egiten dira. Gaur egun

JOSE ANGEL MIKEO
Jardun Elkarteko presidentea

“Bazkideekin barremanak sendotzeko lanean ari da Jardun”



Goienak, euskara eta honen normalkuntzarako lanean jardungo du.

edozein eginkizunetarako ez gara herriko mugetan geratzen, beste herri batzuetara jotzen dugu. Albiste mailan ere, herriko albisteen mugetan ez geratzeak abaintaila dakar, ez gara isolatuta bizi, inguruko herriek ere badute eragina gudan, eta honegatik inguruko herrietan gertatzen dena jakitea ondo dator.

***“Goiena,
Debagoiena
bailararako
osotasunezko
eskaintza eman
nahi duen
komunikazio
zentroa da”***

G. Zer erakarri du Jardun egitasmu honetan sartzeko?

E. Eman dezake denbora gutxian hartutako erabakia izan dela. Urte asko dira, hala ere, bailarako euskara elkarteak elkarlanean gabiltzala. Bailara osoko telebista sortzea, adibidez, Jardun orain 8 urte Debagoien sartu zenetik pentsatzen ari garen gauza bat da. Bien bitartean, aldizkari artean ere egon da elkarlana. Hau guztia komunikazio arloari dagokionez, baina beste zenbait arlotan ere elkarlanean aritu gara.

Orain, Goienarekin horri guztiari zaiera juridikoa eman nahi zaio, kooperatiba forma hartuko duena.

G. Zer du esku artean une honetan Jardunek?

E. Aurten hamargarren urteurrena beteko du. Orain hamar urte Jardun sortzeko asmoarekin genbiltzala, deialdi batek ia gaur ditugun adina bazkide batu zituen, eta bildutako lagun hauek euskararen inguruan zerbeit egin behar zelako ustea zuten. Garai hartan ez geneukan inongo idatzizko komunikabiderik eta euskarazko irakurleak ere gutxi. Ordundik zer lortu da? Euskara irakurle asko sortu dira eta horrez gain, Jardunek antolatutako kultur arloko ekitaldietan ere aurrerapen bat eman da. Hala eta guztiz ere, gizartea aldatu da, eta honelako ekintzetan partehartzeko joera gutxitu ere egin da. Honekin guztiarekin, Jardunek egoera sozial horretara egokitzen dihardu eta baita dituen erronkei aurre egiteko prestatzen ere.

Honela, bazkideekin harremanak sendotzeko inkesta bat pasatu dugu eta ikusten ari garena zera da, bazkideen partehartzeak beste era batera antolatu behar ditugula.

Atzeratua musika taldeek darabilten Seminarioko lokala botatzea

Taldeek egindako proposamena aztertu bitartean erabaki du Udalak

Zonaldea urbanizatzeko asmoz, Seminarioko lokala botatzea aurreikusita dago. Eraiste lanak astelehenean hasi behar baziren ere, atzeratu egin da Udalak lokal hau entsaiurako erabiltzen dituzten musika taldeen proposamen bat aztertzen diharduelako.

Hainbat protesta ekitaldi egin dituzte asteburuan zein astean zehar herriko hainbat musika taldeek. Protesta hauen jatorria, entsaiuetarako erabiltzen duten Seminarioko lokala botatzea da. Udaleko hirigintza proiektuaren barruan aurreikusita koaren arabera, Seminarioan dagoen lokal hau bota egingo da zonaldea urbanizatzeko. Hala eta guztiz ere, hasiera batean lokala eraistea hilaren 28rako aurreikusita zegoen arren, Udalak atzeratzea erabaki du musika taldeek egindako proposamen bat aztertzeko asmoz, Udaleko iturrien ara-



Lokala botako dela eta hainbat protesta ekitaldi burutu dituzte musika taldeek.

bera. Proposamenean, gazteek eraikinaren parte bat zutik uztea eskatu diote Udalari, auziari beste irtenbide bat aurkitu artean. Udala proposamena aztertzen ari da eta botatzea atzeratu egin du.

Seminarioko zonalde honi dagokionez, urbaniza-

tzeta aurreikusita dago. Urbanizazio proiektu honetan, Bidekurutzetatik Novedadeseko kale kantoia zeharkatuko duen pasealekua egingo da eta baita errotonda itxurako lorategi bat ere.

Kale berri honek, ares-tian aipatutako Seminarioko lokalaren zati bat hartzen

du eta horregatik bota nahi da. Horrez gain, lokalaren atzean, Iberdueroren zentral elektriko txiki bat dago, bota beharrekoa hau ere kale berria eraikitzeko. Hori dela eta, Udala enpresa honekin hartuemanen ari da zentrala bota eta beste kokaleku batera eramateko.

Martitzeneko atentatua gaitzesteko kontzentrazio isila deitu zuen Gestok

Kontzentrazio isilera deitu zuen asteazkenean Gesto por la Pazek Fernando Buesa buruzagi sozialista eta Jorge Diez ertzaina asteartean ETAK egindako atentatuan hil ondoren. Kontzentrazio hau, iluntzeko 8etan izan zen Udala Pilota-

lekuko eskaileretan eta 70 lagun inguru bildu ziren.

Eguerdian beste kontzentrazio bat egin zuten berrogeita hamarren bat lagunek Udaletxe parean. Casa del Pueblon ere, dolu-xingoladun Ikurriña jarri zuen sarrerako ate gainean.





Argazkian, Lacor enpresak San Juan auzoan duen lantegia.

Lacorrek Alemaniako Wagner lapiko marka ezaguna erosi du

Operazioarekin aurten 4.000 milioi fakturatuko ei ditu

Marcos Larrañaga taldeak Alemaniako lapiko markarik ezagunena erosi berri du. Lacor eta Ibili enpresak batzen dituen Marcos Larrañagak joan den ostiralean, hilak 18, sinatu zuen Alemaniako Wagner enpresarekin erosketak.

IZENA SOILIK

Bergarako taldeak Alemaniako enpresaren izena erosi du, ez enpresa bera ezta hango makineria ere. Izan ere, Bergaran egingo dituzte Alemanian salduko diren la-

pikoak. Hasiara batean gainera, Wagner izenari eutsiz eta agian epe ertainera Bergarako lapikoen izenarekin.

Bergarako enpresak etxerako, ostalaritzarako eta gozogintzarako lapikoak egiten ditu. Alemaniako Wagner etxeak, berriz, ostalaritzarako lapikoak egiten ditu. Jose Mari Aguado, Lacor enpresako komertzial buruak azaldutakoaren arabera, operazio hau Alemaniako lapikoen merkatuan estrategia garrantzitsu bezala aurkeztu du Marcos La-

arrañaga taldeak. Izan ere, Espainian sektore honetan liderra da eta bere fanktuzioaren %35 Europa, Estatu Batuak, Kanada, Afrikako Iparralde eta Ertamerikara esportatzen du.

Iaz 3.500 milioiko fakturazioa izan zuen taldeak eta egindako operazio honekin, aurten 4.000 milioitara heltea aurreikusten du.

Taldeak iaz 50 urte bete zituen, Ibili enpresa taldera batu zen urtean bertan. Horrekin batera, ISO 9002 kalitate ziurtagiria eman zioten.

Kotxe istripu larria San Juan auzoan

Joan zen ostegunean Kandida Zornoza Aletxa andre bergararrak bizia galdu zuen kotxe istripu baten ondorioz San Juan auzoan.

Istripuko unean, Iñaki Eguren, bere senarra eta semeetako batekin zihoan autoan. Azken honek zauri arinak izan bazituen ere, Iñaki Egurenen Donostiako Arantzazuko Ama ospitalean dirau. Hainbat saihets apurtu zitzaizkion eta ondorioz harnasa hartzeko laguntza behar izan duen arren, hoberrantz egin du eta arriskutik atera da.

Candida Zornoza Aletxaren hileta elizkizunak joan zen larunbatean izan ziren Santa Marina parrokian.

Bi atxilotu kristalak txikitzeagatik

Bergarako bi gazte atxilotu zituen zapatuan Ertzaintzak ustez Matxiategin dagoen Euskadiko Kutxako kristalak apurtzeagatik. Gertakizunak goizaldeko 3:30ak aldera izan ziren; atxilotuak 20 urteko B.L.T. eta 22ko A.G.A. dira.

Agirrebeña

ԳԵՂԵՂԵԱ



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



Omenaldi jendetsua Jose Mari Etxanizi

Jose Mari Etxaniz espetxeratu zutenetik 20 urte bete ziren pasa den larunbatean. Hori dela eta, preso bergararren alde hainbat ekitaldi antolatu izan da. Ekitaldi sorta hau igandean Udal Pilotalekuan egindako ekitaldi politiko eta Etxaniz

zen senideei eskainitako omenaldiarekin amaitu zen. Ekitaldian, Etxanizen gazte denborako diapositibak ikusi ahal izan ziren Juan Martin Elexpuruk azalduta. Xamatzeko dantzariak aurrekua eskaini zioten Etxanizen familiari.



Irizar kaleak itxura berria izango du

Astelehenean, Irizar kaleko eskailerak konpontzeko lanak hasi ziren. Lanek, hilabete eskas iraungo dute, izan ere, jende ugari ibiltzen den kalea da eta ahalik eta azkarren amaitu nahi dira bertako lanak. Asteburu honetarako, hala ere, behin-behineko egurrezko mailak jarriko dira bidea libre utziz.

Eskaileak konpontzeaz gain, kaleak berak ere jasango du aldaketarik. Kale erdian eta goitik behera lau farola, bi banku eta bi jardinera jarriko dira.

OSCANA
am Meer und im Landesinneren
Prospect, anfangs: Tel. 0211/13 30 76
Fax 0211/13 31 91
bella itella reisen GmbH
40212 DÜSSELDORF · KÖNIGSALLEE 64

DanCenter
Wilmacker Str. 32, 10559 Berlin, 030-394 01 00
hoch viele Ferien-
herrlicher Südküste
Katalog gratis in Ihr

SCHWEDEN
100 km s. Österaund
44 m², 6 P., Fl. WK
E-Herd, 80 m² WC, Sa
Mai-Sept. Tel. 00 49
0 79 432

FINNREISE
Gottendis Touristcenter, Korngatan 2, S-00100
Visby, Telefon: +46/4 9927 80 85, Fax: +46/4
98/21 97 20 DEUTSCHES PERSONAL

BRETAG
Vacances Parve
Info: 02 25 538 28/45 33 9
25 538 28/45 33 9
45 44 08

MAYYA Irizar 2.

Berrigara

399 zenbakia.
2000ko otsailaren 25a.

Errotalde Jauregia, 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetz: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak: Estepan Plazaola, Alex Labaien, Maripí Laskurain.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Bittor Rodríguez, Alex Ugalde, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Unai Azkarate, Usoa Mendikute.
Kolaboratzaileak: Juan Martín Elepuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Joxean Azkarate, Antxon Agirre Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

IRAKASKUNTZA EUSKALDUNAREN ALDE

Irakaskuntza eta Euskalgintzarako erakunde ezberdinek bat egin dugu hezkuntzak euskaldundu behar duen xedean, bai Euskal Herri mailan eta baita Bergara mailan ere. Hori dela eta gai honen inguruan gizartea kontzientziatzeko kanpaina bat jarri da martxan Euskal Herriko sei lurraldeetan.

Gure aldarrikapena argi bezain ximplea da: euskara ikastea eskubide kolektibo eta indibiduala den heinean ezin zaio inori ukatu euskararen ezagutza. Ondorioz, Euskal Herria guztian euskaraz ikastea eskubidea aldarrikatzen dugu.

Gure eskakizuna oso ximplea izanik ere ez Euskal Herrian ezta Bergaran ere ez da betetzen bere osotasunean. Horrela, gure alda-

rikapena denon aldarrikapena delakoan, denoi deitzen dizuegu honen alde zerbait egin dezazuen. Horrela bada, larunbat honetan, otsailak 26, eguerdiko 12:30etan San Martin Plazan egingo den bizikleta martxarako deialdia luzatzen dizuegu.

*Denon eskola, EHE,
Ikasle Abertzaleak, LAB,
STEE-EILAS*

ESKERRIK ASKO

Eskerrak eman nahi dizkiegu joan diren bi asteetan Etxanizen aldeko ekintza eta ekitaldietan parte hartu duten guztiei eta hauek aurrera eramaten lagundu dituzuten herritarrei.

*Gestorak
Euskal Presoak
Euskal Herrira
Senideak
Bergarara plataforma*

ZUZENDARI ALDAKETA

Goiena egitasmoak hainbat aldaketa eragin ditu BERRIGARA astekariko organigraman. Horrela, Edu Mendibilek Eneko Azkarate ordezkatu du aldizkariaren zuzendaritzan.

Azken urteotan BERRIGARAKO zuzendaria izan den Eneko Azkarate Goienkaria (bailara mailako astekaria) egitasmoa lantzen ibiliko da aurrerantzean. Era berean, Monika Belastegi bergarar kazetaria BERRIGARAN lanean izango da hemendik aurrera. Ongi etorri!!

tira biraka unai azkarate



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Badaukazu sagardotegira joateko ohiturarik?**Aitor Olabarria**

Gutxitan juten naiz, urtian behin-edo klaseko lagunekin. Aurten be ueste dot laster jungo garela, ia autobusa gertatzen dabitz.

**Jaione Zubizarreta**

Urtian pare bat aldiz juten naiz. Kuadrilliak autobusa alkilatzen dogu normalian, baina kotxian be jun izan gara.

**Manuel Lakarra**

Urtian pare bat aldiz jun izan naiz, baina ez jat gehixegi gustatzen. Jatia gustatzen jat, baina sagardaua ez.

**Mariano Lasanta**

Urtero juten naiz. Iaz bi aldiz egon nintzan, eta aurten be badaukat juteko asmua. Asko gustatzen jat sagardotegiko girua.

**Marta Meabe**

Ez daukat juteko ohiturarik; behin bakarrik egon naiz. Gainera, ez jat sagardaua gustatzen.

**Miren Gurutze Arana**

Urtero juten ga lagunak. Jun zan astian egon ginan Andoaingo baten. Legorretako batera be urtero juten gara, gertuan dagolako.

Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

ERROBERA-AULKIAN IBILTZEKO OZTOPOAK

Aritz Bikuñaren kexa bat jaso genuen joan zen astean. Aritzek errobera-aulkian ibili behar izaten du herrian eta hainbat herritarren sentsibilitate falta salatu nahi izan du lerro hauen bitartez.

Esate baterako, jaiegunetan, Fraisko zuriko zebra pasabidearen parean kotxeak aparkatzen dituzte behin baino gehiagotan. Hori dela eta, arazoak izaten ditu Aritzek, izan ere zebra pasabidearen parean baitago haurren kotxeak, errobera aulkia eta horrelakoak pasa ahal izateko desnibela aipatutako espoloian. Beraz, bertan kotxeak aparkatzen dituztenei hori kontuan hartzeko eskatu nahi die Aritzek, nahikoa arazo arkitektonikori aurre egin behar izaten diete eta.

JOXAN
AR, R, A INDEGI AIbargarai 24
Tf. 943 76 70 29**Inauterietarako
ile-aurpegi
ikusgarriak!****Hartu
ordua!**Ileapaindegi mistoa • Estilistak
Espoloia 4, behe. 943 76 72 76**ARDATZA**
*Brikolaketa*Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guzietako moldurak
Apalak
KajoiakMasterreka 4 behe
☎ 943 76 18 93

adituen esanetan

3D infografia

Infografia hitzarekin, alde batetik informazio grafikoa (egunkarietan edo aldizkarietan ikus dezakeguna) eta bestetik hiru dimentsiotako efektuak definitzen ditugu. Hiru dimentsiotako infografia askoz ere efektistagoa dela esan daiteke, alderdi bisualak sekulako garrantzia hartzen duelako.

Lehendabizi landuko dugun irudia modelatu beharra dago ("mundu grisa" deritzona) eta horretarako figura geometriko primitiboetan (kuboak, esferak, zilindroak...) oinarrituko gara, ondoren, ordenagailuko erraminten bitartez, modelo horri kolora eta materiala aplikatuz, testurizatu esaten zaiona. Hau da egurrezko modelo bada, egurraren ezaugarriak (zimurtasuna, distira etab.) emateko aukera daukagu. Hirugarren pausua eskenatokia sortzea litzateke eta horretarako, argazkilari batek egiten duen antzera, argien eta kameran bitartez giro eszenikoa sortzen dugu. Eta, azkenik, "render" izeneko prozesua hasten da, hau da, ordenagailuak imajina sortzeko behar duen denbora (konplexutasunaren arabera, ordulaurdena eta bi ordu bitartekoa izan daiteke).

Hiru dimentsiotako infografia lantzeko programarik erabilienetakoa LightWave izenekoa da (Estatu mailan infografia maila



BORJA LOPEZ

Infografoa

"Hiru dimentsiotako infografiaren aplikazioen artean, arkitektura, industria, publizitatea, telebista, zinea edota web orriak aipa daitezke"

ona dugula esan behar da) eta ordenagailu mota baten baino gehiagotan erabiltzeko aukera dago. Aplikazioei dagokienez, arkitekturan, industria mailan (makina baten funtzionamendua feria batean erakutsi ahal izateko), publizitate eta telebista programetan (gero eta gehiago erabiltzen dira hiru dimentsiotako efektuak), packaging lanetan (prototipoa egin baino lehen produktu berri baten diseinua aurkezteko orduan) edo web orrien sorreran erabil daiteke. Era berean, "play-station" eta horrelako jokoak egiteko ere hiru dimentsiotako infografia gero eta gehiago erabiltzen da gaur egun.<



Publizitatean ere gero eta gehiago erabiltzen da 3D infografia.

bergarako errota



ERROTABARRI

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (GAO), 1929koa:

"Maria Gantxegik adierazten du Bergarako udalerrian, Angiozar bailaran, Angiozar erreko urak erabiltzen dituela Errotabarri izeneko errota indarra sortzeko eta erabilerari hori Herri-Uren Aprobetxamenduen Erregistroan inskribatzea nahi lukeela. Darabilen ur kopurua, bataz beste 15 litro segunduko da eta duen ur-jauzia 5,80 metrokoa. Eta hau guztia jendaurrean jartzen da..."

Antzeko iragarki bat agertu zen GAO-n 1956an ere; orduko hartan, Dionisio Gazteluren izenean.

1936an irina ehotzeko errota publiko gisa eman zitzaion alta Maurizio Gantxegiren oinordekoen izenean, eta 1954tik aurrera Dionisio Gaztelu Agirrezabalen izenean egon zen, harik eta 1958an errota publiko gisa baja eman zitzaion arte. Dionisio Gaztelu izan zen azkenengo erroteraria.

Angiozar errekoaren eskumatara dagoen errota bat zen eta bi harri zituen, batez ere, garia eta artoa ehotzeko erabiltzen zirenak.

1964an utzi zion lan egiteari eta bere azkenengo urteetan %10eko laka kentzen zuen.

Gaur egun ez dago erabiltzeko moduan.

KOKAPENA. Bolintxo baino 100 bat metro gorago, Angiozarko elizaren azpitxoan.

Antxon Agirre Sorondo



Nikaraguako haurren alde

A ze talde polita osatu zuten **Mariaren Lagundia Ikastolako neska-mutikoek** Santa Ageda bezperan. Herrian kalerik kale ibili ziren kantuan Nikaraguako haur behartsuen alde. Ekintza honen bidez, **33.000 pezeta** jaso eta Nikaraguara bidaliko dituzte. Hori guztia dela eta, eskerrak ematen dizkiete laguntza eskaini zuten guztiei.

Opel, markarik salduena

Iaz, 1999. urtean, Opel izan zen auto markarik salduena Gipuzkoan. Hori dela eta, Opel etxeko Zuzendari Komertzial Orokorra, **Juan Manuel Lumberras**, Bergarako **Ola Kontzesionarioa** bisitatzera etorri zen joan zen eguean, langileekin elkartu eta berauen lana zoriontzeko. Guztira, marka honetako **2.197 auto** saldu ziren iaz Gipuzkoan, horietatik **112 Bergaran** matrikulatuak. Modelorik salduena Astra izan zen. Zorionak eta segi horrela!



Zer gertatzen da zaborrarekin?

Hainbat eskolako neska-mutikoak pasatu dira dagoeneko Kultur Etxean dagoen erakusketa bikoitzetik. Argazkikoak, Aranzadiko 2. DBHko ikasleak dira. **“Hondakinak gutxitu eta birziklatzea”** eta **“Bitxien”** izenburua dute erakusketok, eta **Debagoieneko Mankomunitateak eta Udalako Ingurugiro Eskolak** urtero antolatzen duten zaborrari buruzko kanpainaren barruan daude. Kanpaina honen helburua, bisita gidatuen bidez, neska-mutikoei bildutako zaborrari ematen zaion tratamendua zein den azaltzea da, eta baita etxetxe bilketetatik berreskuratutako gauza bitxiak erakustea ere.

67 urte ezkontuta

Alejandro Alberdi eta Josefa Zabaleta 1933. urteko otsailaren 22an ezkondu ziren Aizpurutxon. Dagoeneko 67 urte daramatzate ezkontuta. 50. urteurrena ere ospatu zuten, baina familiakoek zorionak eman nahi izan dizkiete berriz ere.



Pizza aukerarik zabalena!



Artekalea 1, BERGARA.

Zapatu eta domeketan eguerdian ere zabalik

ETXERA ERAMATEKO EGUNEKO MENUA ere badaukagu!

ENTZALADAK

ENTZALADA MISTOA. 600
ARROZ ENTZALADA. 625
OILASKO ENTZALADA. 650
PASTA ENTZALADA. 625
GANBA KOKTELA. 700
PIPER ETA ANTIXOA PINTXOA ROKEFORT SALTSAZ. 750



PIZZAK

MARGARITA (Oreganoa, piperbeltza, albaraka). 775
TIPULA. 850
FUNGHI (Txanpinoiak). 975
BEGETALA (Kalabazina, tipula, esparragoa). 975
PEPERONI (Pikillo piperra, berakatzza). 1125
ROKEFORT. 950
4 GAZTA (Gazta nahasketa). 1075
NAPOLI (Antxoak, olibak). 950
TONNO (Atuna). 975
DI MARE (Ganbak, antxoak, muskuiluak, atuna). 1100
IZOKINA (Izokin ketua, tipula). 1125
PROSCUITO (York urdaiazpikoa). 1000
MEXIKARRA (Okela pikatua eta berakatzarekin). 1075
4 STACCIONE (York, alkatxofak, txanpinoiak). 1075
BOLOGNESA (Okela pikatua). 1075
EULALIA (Piper berdeak, hirugiharrea). 1075
BASERRI (Txorizoa, hirugiharrea, arraultza). 1125
ARTEKALE (Okela pikatua, arraultza, pikillo piperrak). 1125
HONDDOAK. 1500
TROPICALA (Piña, York urdaiazpikoa). 1075



Asteburuetan etxez-etxeke zerbitzua

943 76 72 00

...eta gainera, freskagarriak, garagardoa, zukuak eta postreak!

PASTA

SPAGHETTI BOLOGNESA. 875
SPAGHETTI CARBONARA. 875
SPAGHETTI MINA BERAKATZAREKIN ETA PIKANTEAREKIN. 875
FUSILLI ROSA. 900
TAGLIATELLE. 900
RIGATONI 4 GAZTA. 900
UKONDOA ESPINAKA SALTSAREKIN. 900
OKEL eta GAZTA RAVIOLIAK. 950
NIDOS AL PESTO. 900
LASAGNA. 950
BARAZKI eta OKEL KANELOIAK. 900
KALABAZIN BETAOK. 900
ARRAIN LASAGNA. 950



Ebaki hemendik eta eraman beti aldean ebo-itsatsi zure hozkailuan!



Ekitaldi politikoak

DONOSTIA

Eguna: igandea, otsailaren 27a

Lekua: Anoeta Kiroldgia

Ordua: 12:00etan

Hizlariak:

J.J. Gonzalez de Txabarri

Juan Jose Ibarretxe

Xabier Arzalluz

ARRASATE

Eguna: astelehena, otsailaren 28a

Lekua: Amaia antzokia

Ordua: 20:00etan

Hizlariak:

J.J. Gonzalez de Txabarri

Joseba Egibar

Xabier Arzalluz

Autobusak egongo dira

Zeuk erabaki



kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 53. zenbakia. 2000ko otsailaren 25a.

Igogailuak merkeagoak izango dira

Udalak 2,5 milioi pezeta emango ditu igogailuak jartzeko

Igogailuak ipintzeko azterketa teknikoa egiten ari da Udala. Dagoeneko Errekalde auzoko atari baterako amaitu du azterketa hori eta tarteko eskailburuetara iritsiko litzatekeen igogailu bat jarri daitekeela erabaki du. Igogailu hori kanpotik joango litzateke eta esan bezala, ez litzateke pisu zehatzera iritsiko, baizik eta bi pisuren tarteko eskailburura. Hori dela eta, erabiltzaileak zortzi eskailera igo edo jaitsi beharko ditu.

Errekaldeko bizilagun horiek nahi izango balute, Udalak bi milioi eta erdi PTA emango lituzke igogailua jartzeko. Proiektu osoak 12 milioi PTA balio ditu gutxi gorabehera. Eusko Jaurlaritzak laguntza fiskalak eta kreditu txikiko laguntzak ematen ditu.

Igogailua jartzeko, etxebizitzetako bostetik hiru ados egon beharko lirateke igogailua ipintzeko. Horren arabera, Errekaldeko bosgarren atariaren kasuan, nahikoa litzateke zortzi bizilagunek nahi izatea proiektuak aurrera egiteko. Gero pisu bakoitzaren kostua ere proportzionala izango litzateke, hau da, zenbat eta gorago bizi, orduan eta gehiago ordaindu beharko da. Adibide bat jartzeagatik, lehenengo pisura joateko hamasei eskailera baldin badaude, igogailuarekin zortzi geldituko lirateke. Bizilagun honentzat kostua 0 PTAkoa litzateke, baina bosgarren pisukoak lehen 80 eskailera ditu eta igogailuarekin (lehenengo pisukoak bezala) 8 baino ez litzateke izango. Honek 1.187.500 PTA ordaindu beharko lituzke.

Bizilagun bakoitzak ordaindu beharrekoa Udalak egindako azterketatik at-



Honela geldituko litzateke Errekalden jarri nahi den igogailua.

ratzen da, baina oraindik Errekaldeko bizilagunen erabakia gelditzen da. Gainera, hau bosgarren atariaren kasuari dagokio. Orain hirugarren atarikoek eskatu dute ikerketa egitea.

Ibarreko bizilagunek ere eskatu omen dute azterketa egitea. Badirudi beraz, Udalak ematen duen laguntza dela eta, herriko etxebizitza zaharrek balore handiagoa izango dutela. Valen Moñuxek azaldu digunez, "etxebizitza horiek igogailuarekin euren balioa hirukoiztuko lukete". ■

Pisu bakoitzeko kostua igo egiten da:

2. pisua	1.187.500 PTA
3. pisua	1.979.167 PTA
4. pisua	2.770.833 PTA
5. pisua	3.562.500 PTA

Bizilagun bakoitzak ordaindu beharrekoa:

2. pisua	395.833 PTA
3. pisua	659.722 PTA
4. pisua	923.611 PTA
5. pisua	1.187.500 PTA

■ ■ ■
Etxebizitzetako bostetik hiru ados egon beharko lirateke igogailua ipintzeko
■ ■ ■

Martxoak 8. Atzetik aurrera



**Pilar
Etxaniz**

Zein izan da mende honetan gizarteari onura handiena egin dion aurkikuntza? Nik, ez dut zalantzarik. XX. mendeko emakumeei egin nahi diet gaur nire omenalditxo.

Emakume anonimo askori euren lan eta kemenagatik lortu genuelako boto eskubidea eta, beraz, "hiritar" kategoria. Gure gorputza geurea dela eta guk dugula berekiko jabetza eta erabakikortasuna aldarrikatzen hasi ziren emakumeei, beraiei esker lortu dugulako amatasuna aukera bat izatea. Bere adimenarekiko konfidantza izan zuten emakumeei, eta pentsakera hertsien gainetik esparru politikoak eta akademikoak okupatzen ausartu zirenei. Lankideen deskonfidantza saihestuz, gizonen jositako lantokietako ateak zabaltea lortu zuten emakumeei, independentzia ekonomikoa lortuz. Bere izen propioarekin.

Historian sartzea lortu zuten emakumeei: Virginia Woolf, Frida Kahlo, Simone de Beauvoir... euren bizitzaren eta ereduaren bitartez azaldu zigutelako zer den emakumea izanda pentsakera autonomoa izatea.

Gizarte osoak du zor bat emakume hauekin, berdintasunaren bidea eta bere garrantzia erakutsi zigutelako. Atzera begira lorpen handiak ukatu ezinak dira; hala ere, berdintasuna oraindik helburu bat da.

Etxeko lanei eta umeen eta zaharren zaintzari erreparatu ia lan guztia emakumeen bizkarretan geratzen da. Munduko lurralde gehienetan txirotasunean bizi direnen %80 emakumea da. Emakumeek aurten ere badugu zer gogoratu eta zer eskatu.

Antiguako ermita berriztu egin dute

Martxoaren 4an Aingeru Guardako meza

Aingeru Guardako eguna, martxoaren lehena, ospatzen dute baserritarrek eta egun horretan urtero meza izaten zuten Antiguako ermitan. Aurten, ordea, larunbatean ospatuko dute egun hori eta Antiguako ermita berriztuan emango den mezaren ondoren, bazkaria izango dute.

Ermita kanpotik eta barrutik berriztu dute. Kanpoaldeko harria garbitu egin


dute eta elizpeko exerlekua eta ate nagusia ere berriztu dituzte. Barrualdean lurrean prola bota, hormak margotu eta eserleku pare bat berriztu dituzte. Izan ere, egurra sitsak janda dago. Hau sahies-teko asmotan Foru Aldundiari dirulaguntza eskatu diote, baina oraindik ez dute erantzunik jaso, nahiz eta Antiguako ermitako Ama Birjinaren irudia konpontzeko dirua eman zuen bere egunean.

Bitartean lanak ermitan zegoen diruarekin ordainduko dira. Izan ere, 700.000 PTA zeuden bilduta.

Gaur egun Antiguako ermitaren garbiketa lanak Sa-

bina Agirrek eta Miren Arangurenegiten dituzte eta maiordomoak Vitoriano Barrena eta Ventura Igarza dira. Euren kontatu digutenez, "sitsa kontrolatu ezan bost bat urte barru ermitan arazo larria egongo da".

Martxoaren 4an Aingeru Guardako meza emango da eta maiatzean izango dira astean zehar egiten diren mezak.



Lanak bildutako diruarekin egin dira.



**MUEBLES
IGEA**

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Juan Migel Pagaldai eta Bentura Igarza.

Bailarako abeltzainen batzar orokorra

Debagoieneko 52 abeltzain elkartu ziren

Joan zen domekan Debagoieneko abeltzainak elkartu ziren Antzuolako Udaletxeko osoko bilkura aretoan. Urteroko ohiko batzarra egin zuten hantxe eta Bergara, Arrasate, Elgeta, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga eta Antzuolako baserritarrak elkartu ziren, gehienak ere ganadua dutenak. Guztira 52 lagun elkartu ziren batzar orokorrean. Antzuolatik ere bi kide daude elkarteko zuzendaritzan, Juan Migel Pagaldai eta Bentura Igarza. Eurek kontatu digutenez, "ohiko batzarra izanik urteko balantzea eta horrelakoak esan ziren. Baina berrietasunen artean, hemendik aurrera ganaduei bi botika eman beharrean bakarrekin nahikoa izango dela da. Izan ere, albaitariak ikerketa bat egin dute eta udaberri eta udazkenean ematen ziren

botiken ordeztu, bakarra emango digute ganaduen hesteak eta gibela ondo mantentzeko".

Bi antzular hauentzat zuzendaritzan egiten duten seigarren urtea da eta bi urte barru beste bi ordezkari aurkeztuko dituztela baieztatu digute "nahiko denbora egin dugu eta".

Mankomunitateko elkartean dauden ganadu jabe antzularren artean, gehienek batzaz beste 2 edo 3 buru dituzte. Datuei erreparatu gero bost burutik behera dituzten 29 bazkide daude herrian eta guztira 40 bazkide daude Antzuolan.

Elkarteko bazkideek albaitarien zerbitzua izaten dute eta horrez gain, euren ganadu buruen kontrol fitxa bete behar izaten dute.

Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon

1. Aittittak debalde jua dira Benidormera.

1.

2. Ziburuetan ibilli leikeza.

2.

Izen-abizenak eta telefonua:

.....

idolaz bertako hizkeria
ANTZUOLA

Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:

1. Karnabaletan pirata jantziko haiz?

2. Eguraldixan gainian dihardue.

Sarituak: Ana Peñalba eta Imanol Lizarralde

Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegixan, **DATORREN EGUAKITZA BAINO LEHEN.**

Erantzun zuzenen artian 5.000 pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuaren ale bat zozketatuko ditugu hamabostero.

zabalo

IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak

Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89



Euskal
sukaldaritza

Eguneko
menua

Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

**LEKU-BERRI
MERENDEROA**


Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

Danok Bat izan zena martxoan botako dute

Hasierako asmoak atzeratzen ez badira, Danok Bat elkarteak egon zen eraikina eta Tellerianeko lantegi zaharra martxoan botako dituzte.

Udalak bi eraikin horien ordez parke bat eta etxebizitzak eraikitze asmoa dauka. Etxebizitzak Tellerianeko eraikina dagoen aldean egingo lirateke, Kalegoi igotzen eskuma aldean. Erreka aldean egingo litzateke parkea. Parkea nolakoa egin, ordea, erabaki barik dauka Udalak. Izan ere, orain 6 metroko zuloa dago Danok Bat zaharretik errekarara, eta eraikin honen zimenduak errekatik 3 metrora daude. Hori dela eta, aukerak asko izan daitezke. Valen Moñuxen arabera "parkeak bi aukera ditu. Edo 6 metroko altuerara egin edo 3 mra. Dena dela, aztertu egin behar da zein den irtenbiderik egokiena". Parkeak 600 m2 izango litzateke eta hiruki luze itxura.



Danok Bat eta Tellerianeko eraikinak botako dituzte.

Parke horrek oinezkoendako pasabidea izango luke Ondarreko etxebizitzetaraino. Honela errekararen bi aldeak lotuta geldituko lirateke. Etxebizitzaren proiektuak 30 etxebizitza aurreikusten ditu. Etxe guztiek Antzuolako alde zaharreko etxeen itxura izango lukete. Ez lirateke etxe garaiak eta pisu askokoak izango.

tuak 30 etxebizitza aurreikusten ditu. Etxe guztiek Antzuolako alde zaharreko etxeen itxura izango lukete. Ez lirateke etxe garaiak eta pisu askokoak izango.



Presoen aldeko manifestazioa

Antzuolako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak, martxoaren 5ean, domekan, Aretxabaletan egingo den manifestaziora joateko deia egin du. Debagoieneko euskal presoen aldeko plataforma guztiek antolatu dute agerraldia. Gainera kirol eta kultura arloko taldeei parte hartzeko deia egin diete. Honela, talde hauek "Debagoiena euskal presoen eskubideen alde" leloa eramango dute eta plataformek, berriz, "Euskal Presoak Euskal Herrira" leloa.

Bailarako udalei ere agerraldian parte hartzeko deia egin diete eta dagoeneko, Antzuola, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalek baietza eman dute.

Agerraldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da Aretxabaletan, datorren domekan, martxoaren 5ean.

Karnabalak

Martxoaren 5ean ospatuko dira inauteriak herrian eta goizean zein arratsaldean mozturrotutako dantzariak izango dira nagusi. Mutilak sorgin jantzita aterako dira urteroko sorgin dantza eskaintzeko.

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA

BERGARA

609 157 131

609 150 164

GOROSTI Taberna

☎ 943 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola

943 76 60 19

943 76 60 43

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

Gazte Informazio Gunea

Herritar gazteei informazio bilaketa erraztuz

lazko ekainean ireki zituen bere atak Bergarako Gazte Informazio Guneak. Bere helburua agerikoa da: gazteei behar duten informazioa eskaintzea lan, ikastaro, beka etabarren inguruan. Bulego hau Kultur Etxean dago, eta eguen, eguakitz eta zapatuetan egoten da irekita kontsultak egin nahi dituen gazte ororentzat.

Ekimen hau orain dela zazpi urte jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Sailak, eta pixkanaka-pixkanaka herri askotan joan da gauzatzen bulego eta guneak jarriaz. Gaur egun, 41 herritan daude gazteentzako informazio gune eta bulegoak.

Bergaran iazko ekainean zabaldu zituen bere atak gazteentzako informazio gune honek, Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko akordio baten ondorioz. Foru Aldundiak herrietan horrelako bulego bat jartzeko laguntza bat eskaintzen du. Bergarako kasua, hala ere, berezia da, herri gehienetan udal langileak izaten baitira bulego hauen ardura hartzen dutenak, eta

Bergaran, berriz, enpresa bat, Armintz hain zuzen ere, kontratatu zuen Udalak Gazte Informazio Gunea gestionatzeko.

Maidar Sedano arduradunaren ustez, "gaur egungo gizartean gero eta informazio gehiago dagoenez, jendeak askotan ez daki nora jo, ez daki behar duen informazioa non bilatu. Gure helburua, beraz, hona etortzen diren gazteei informazioa eskaintzea eta behar duten informazio hori non eskuratu dezaketen jakinaraztea da".


INFORMAZIO ITURRIAK

Gazte Informazio Bulego eta Guneen informazio iturri nagusia Gazteria Sailaren datu base zentrala eta CRAJ!, bere

Gipuzkoako delegazioa dira. Maidar Sedanok azaldu digunez, "zentraletik oinarizko informazioa bidaltzen digute astero-astero". Datu base hauetan gazte jendearentzat interesgarriak diren hainbat gairi buruzko informazioa jasotzen da, eta Euskal Autonomi Elkartearen datu base hauetan 41 bulego eta guneetara bidaltzen dira datu base hauek. Arduradunaren esanetan, datu base hauek, egunkari, aldizkari, foileto, Buletin Ofizial etaberratik hartutako informazioarekin osatzen joaten dira. Baina zentraletik jasotako informazioaz aparte, Maidar bera ere arduratzen da iturri ezberdinetatik informazio gehiago eskuratzeaz, batez ere Interneteko helbide ezberdinak arakatzuz.



Eguen eta eguakitz arratsaldetan, eta zapatu goizetan egoten da zabalik Informazio Gunea.



BULEGOAK ETA GUNEAK

Bergarako gazteentzako zerbitzu hau, Gazte Informazio Gunea bat da, eta ez bulego bat. Herri handietan eta eskari handiagoa dagoenetan bulegoak daude. Berauetan, bulegoetako ordutegia izaten dute, eta informazioa eskaintzeaz aparte, bestelako ekintzak ere antolatzen dituzte. Maider Sedanok dioenez, "Bergarako kasuan, bulego hau informazio puntu edo gunea bat da, eta ordutegi murrizta daukagu. Horregatik, gazteentzako egokienak diren egun eta orduak hautatzen saiatu gara bulego irekitzeko, eta baita informazioa beste bide batzuetatik bideratzen ere. Ordutegia hautatzeko orduan, kanpoan ikasten ari diren gazteak hartu dira batipat kontutan. Horrela, ikasle hauek eguen edota eguakitzetan bueltatzen direnez herrira, bi egun horietan 4etatik 8etara egoten da irekita bulegoa, eta baita zapatu goizetan ere, 9:30etatik 13:30etara". Bestalde, bulegoa astean hiru egunetan bakarrik egoten denez irekita, Kultur Etxeko sarreran panel informatibo bat jarrita dago, gazteek nahi duten guztietan kontsultatu dezaketena, bulegoaren ordutegira mugatu beharrik izan gabe. Bulegora iristen diren eskaintzarik interesgarrien aukeraketa bat egiten du astero Maiderrek, eta panelean jartzen du informazio hau. Bertan, ikastaro, lan, beka, ekintza, oposaketa, sari eta lehiaketei buruzko informazioa zintzilikatzen du.

GAZTEENGANA HURBILDUZ

Esan bezala, iazko ekainean hasi zen Bergarako Gazte Informazio Gunea bertako gazteak informatzeko lanean. Hala ere, Maider Sedanok esan digunez, "hasiera batean ez zuen arrakasta handiegirik izan zerbitzu honek, baina kontutan hartu behar da ekaina ez dela garairik onena, kurtsoa ere orduan amaitzen baita". Hasiera batean, hilero 30 bat kontsulta izaten zituen Maiderrek, baina gero eta jende gehiago hasi da bulegora hurbiltzen, eta gaur egun 60 edo 70 bat gazte joaten da hilero Gazte Informazio Puntura. Sedanoren ustez, "baliteke hasiera batean jendeak ez ezagutzea zerbitzu hau. Horregatik, urtarilean, 15 eta 26 urte bitarteko bergarar guztiei eskutitz bana bidali genien, zerbitzuaren berri emanez. Beraingana hurbiltzen saiatu gara. Eskutitz honek ondorio oso positiboak izan zituen, ordutik izugarri igo baita zerbitzuaren erabilera".

Informazio bila etortzen diren gehienak 20 eta 24 urte bitarteko gazteak izaten dira, eta emakumeak gehienbat. Horren arrazoiak galdeginda, zera esan digu Maiderrek: "emakumezkoek ez dute gizonezkoek adinako aukerarik lan munduan sartzeko, eta beraz, edo lan bila dabilta, edo ikasten jarraitu nahi dute eta ikasketei buruzko informazio bila datoz".

Informazio gunea honetara hurbiltzen den jendeak, bidaiei buruzko in-

"Gizartean gero eta informazio gehiago dagoenez, jendeak askotan ez daki nora jo. Gure helburua hona datozenei laguntzea da"

MAIDER SEDANO

formazioa eta kanpora ikastera joateko aukerak ezagutzera jotzen du gehienbat. Hala ere, asko dira modulu eta karrera unibertsitarioei buruzko informazioa eskuratu nahi dutenak ere, eta nola ez, lan bila dabiltzanak.

BERRIKUNTZAK


Gazte Informazio Bulego eta Guneen helburu nagusia informazioa eskaintzea den arren, harantzago iritsi nahi du zerbitzu honek. Alde batetik, berebiziko garrantzia ematen zaio norberak informazio iturri ezberdinak ezagutu eta erabiltzeari.

Bestalde, informazioa bideratzeaz gain, bestelako ekintzak ere antolatzen hasi nahi du Maiderrek, eta hasteko, Gazte Informazio Gunea iragartzeko kartel lehiaketa bat antolatu dute.

Bestalde, euskal Gazte Txartelaren baliokide diren atzerriako txartelak, irakasleentzako txartelak eta aterpeki-de txartelak eskuratzeko, orain arte Donostiara joan behar izaten zen, baina hemendik aurrera bertan atera ahal izango dira.

INTERNET, INFORMAZIO ITURRI GARRANTZITSUA

Esan bezala, Gazte Informazio Gunearen eginbehar bakarra ez da informazioa eskaintzea. Maider Sedanok oso garrantzitsua deritzo, norberak behar duen informazioa eskuratzeko iturriak ezagutu eta erabiltzeari. Horrela, Gaz-



Kultur Etxeko sarreran lan, beka, ikastaro etabarri buruzko informazioa eskaintzen duen panel bat dago.

Hasiera batean arrakasta handiegirik izan ez bazuen ere, gero eta gehiago dira Gazte Informazio Gunera hurbiltzen diren gazteak

hasi berriak diren musika taldeak eza-gutzera emateko. Herriko musika taldeei aukera honen berri eman, eta web orri honetan beraien burua iragartzen lagundu nahi nieke”

Hala ere, ez da Gazteria Sailarena gazteentzat interesgarri den web orri bakarra. Interesgarrienen artean, IVAP-ena daukagu Sedanoren ustetan (<http://www.ivap.org>). Kontuan hartzekoa da administrazio publikoak ere badaukala bere lan eskaintzak argitaratzen dituen orria Interneten (<http://www.map.es>).<

teria Sailak Interneten web orrialde bat (<http://www.euskadi.net/gazteria>) ireki berri du. Honekin bulego zerbitzutik harantzago joan nahi izan da, eta edozeinentzat eskuragarri jarri oinarrizko informazioa. Helbide honetan badago

musika gida bat. Bertan, taldearen historia, musika estiloa etabar deskribatzen dira, eta kontzertuak antolatu nahi dituen jende askok erabiltzen du gida hau taldeak ezagutu eta hautatzeko. “Hori ere oso interesgarria izan daiteke

Ezagutzen duzu Gazte Informazio Gunea?



Itsaso Louyest

16 urte. Ikaslea

Bai, ezagutzen dut. Behin joan nintzen aterpetheen inguruan informatzera. Horrelako zerbitzuak ondo daudela iruditzen zait, eta badaukat bertara bueltatzeko asmoa aterpekeide karneta ateratzeko.



Ibai Elorza

23 urte. Ikaslea


Ez dut ezagutzen, ez bainaiz Bergarakoa. Hala ere, ondo iruditzen zait horrelako bulego bat egotea. Oraingo ez dut beharrik ikusi, baina egunen batean beharrik izango banu joango nintzateke informazio bila.



Arantazu Txintxurreta

23 urte. Ikaslea

Ez naiz inoiz joan, baina ezagutzen dut, eskutitz bat jaso bainuen zerbitzu horri buruzko informazioa emanez. Oraindik ikasten nabil, baina karrera amaitzerakoan uste dut erabiliko dudala. Oso positiboa iruditzen zait horrelako informazio bulego bat egotea.



Aitzol Mujika

20 urte. Ikaslea

Ezagutzen dut, gutuna iritsi zitzaidan eta. Eskutitz horretan ematen zen informazioaren arabera, eskaintza interesgarriak daude, nahiz eta ez naizen orainarte sekula egon. Baina aurrerago badaukat joateko asmoa, Interneteko musika gidan iragartzeko.

Axen Garitano, pozik Pirenan lortutako emaitzarekin

Meniskoa apurtuta izan arren, 37. postuan sailkatu zen

Axen Garitano bergararrak, seigarren aldiz, Pirena txakur leren zeharkaldian hartu du parte. Meniskoa hautsita izan arren, proba amaitzea lortu zuen Axenek, 15 etapatan 500 kilometro inguru egin ondoren. Garitano sailkapeneko 37. tokian geratu zen.

Axen Garitano Pirenako beteranoetako bat dugu, izan ere izandako 10 edizioetatik seitan hartu du parte. Aurtengoan sekula baino edur gutxiago izan dutela diosku; "tramo asko belarretan egin dugu eta edur faltagatik zazpigarren eta zortzigarren etapetako ibilbidea aldatu behar izan zuten antolatzaileek". Hala ere, ordurako onenen artean sailkatzeko aukerak galduta zeuzkan Axenek, 6. etapan (Montgarri-Pla de Beret, 42 kilometrokoa) ordu eta laurden galdu ondoren. Axenek esan digunez, "lau txakur deshidratatu egin zitzaizkidan egun horretan eta denbora asko galdu genuen. Bestela, gainontzeko etapetan nahiko ondo moldatu naiz". Axenek 14 txakur eroan zituen Pirenara, guztiak Siberian Husky arrazakoak. Leran tiratzeko 12 txakur erabili ahal ziren eta beste biak ordezeko modura egon dira. Axen bezala, "Elur" izeneko txakurra (7 urtekoa) dagoeneko Pirenako sei ediziotan izan da eta txakurrik gazteena "Aitz" zuen, urtebete eta lau hilabeterekin. Txakurrek bu-



Axen Garitano Pirenako proban ateratako argazkian.

ruhauste bat baino gehiago ere eman diote, "bi txakur eme eraman nituen, nireak ez zirenak, eta biak ere altan jarri ziren. Mala letxe ona!".

FAIR-PLAY SARIA

Axenekin batera Idoia Lonbide izan da Pirenan lagun-

tzaile, eta antolaketari dagokionez, urtetik urtera hobetzen doala dio; "pena bakarra hori izan da, nahikoa edur ez egotea. Baina ibili garen leku batzuetan gozatzeko moduko baldintzak izan ditugu". Parte hartu ahal izateko 145.000 pezeta-ko inskripzioa ordaindu be-

har izan zuen Axenek. Nutro pentsu etxearekin sinatuta daukan babesle-kontratuari esker, Nutrok ordaintzen dio izen-ematea eta, horrez gain, urte osoan txakurrendako jana ere ematen dio. Pirena amaitzea lortzen duten guztiei inskripzioaren erdia itzultzen diete antolatzaileek. Horrez gain, iaz bezala, "fair-play" saria eskuratu du Axenek. Guztira, 53 partaide izan ziren eta irabazlea Grant Beck kanadiarra izan genuen.

MENISKOA HAUTSITA


Esan bezala, meniskoa hautsita amaitu du Axenek; "joan baino lehen, Sorian entrenatzen nengoela, mina hartu nuen izotz punta batekin, frenatzerakoan, eta bigarren etaparako min handia somatzen nuen belaunetan. Pirenako medikuak bendajea jarri eta anti-inflamatorioak hartzea agindu zidan eta ahal nuen moduan ibili naiz. Ziurrenik meniskoa operatu beharko didate eta aurtengo denboraldian ezin izango dut proba gehiagotan parte hartu".

Beraz, ia ziurtzat eman daiteke Axen ez dela izango apirilaren 9an Gorlan jokatuko den Txakur Leren VII. Txapelketan. Baina datoren urtean ere Pirenan izateko asmoa azaldu du. "Alaskano arrazako hiru txakur ekarri ditut eta Siberian Huskyak eta Alaskanokak eroango ditut orduan. Gogorra izan arren, proba gustokoa dut eta oso gustorara joaten naiz".

Aitor Oregik, Telleriarekin batera, 2. mailako finala jokatuko du gaur

Telleria bermeotarrarekin bikotea osatuz, Aitor Oregik bigarren mailako finala jokatuko du gaur, eguakitzan, 19:00etan Oiongo pilotalekuan. Aurrean Esnal hernaniarrak eta Mendia beasaindarrak osatutako bikotea izango dute. Euskal Telebistak difertuan eskainiko du gaur gauean.

Aitor Oregik zortzi urte daramatza profesionaletan eta gaur garaipena lortzen badu, profesionaletako lehen txapela litzateke. Besagain enpresako pilotariak txapelketa bikaina burutu du eta berak esan digunez, "orain lan hori borobiltzeko gaurko finalean garaipena eskuratzea falta zaigu. Dena den, gure aurkariak gogorak izango dira: Mendia oso pilotari se-



Aitor Oregi Besagain enpresarekin ari da jokatzen.

guruia da eta Esnal, berriz, errematatzerako orduan oso arriskutsua da. Partidu borrokatua izango da". Dena den, bera eta Telleria ere saioi onean direla diosku: "Telleriak oso maila ona

baina bigarrenean Gorostiza eta Nalda nagusitu ziren Iruñean (8-22). Desenpateko partiduan, zapatuan, finale-rako txartela lortu zuten Oregik eta Telleriak, Gasteizen 22 eta 14 irabaziz.

erakutsi du eta nire jokoak ere hobera egin duela esango nuke".

BEDERATZI BIKOTE

Guztira, lehenbiziko kanporaketaren ostean, bederatzi bikote izan dira lehian 2. mailako txapelketan. Zabala eta Fuertes kanporatu ondoren, finalerdietan Gorostiza eta Naldaren aurka jokatu behar izan zuten Telleriak eta Oregik, hiru partidutara. Lehenbizikoan, Bermeon, garaipena lortu zuten 22 eta 13ko emaitzarekin

Mendi irteera domekan

Alpino Gorlak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak domekan, hilak 27, Laredo eta Oriñonera joateko irteera antolatu dute. Irteera goizeko 7etan egingo da Frontoitik. Argibideak 943 76 48 51 zenbakian.

Mendi bizikleta irteera

Begarako mendi bizikleta taldeak urteko lehen irteera egingo du domekan, hilak 27, 9:30etan Beheko Estaziotik. Bergaratik irten eta Uzarraga, Gorla, Pol-Pol eta Osintxuraino joango dira txirrindulariak.

Igerilekuak itxita astebetetz

Agorrosingo udal igerilekuak itxita izango dira martxoaren 6tik 12ra bitartean, Osakidetzak agindutako urteroko garbiketa egin ahal izateko. Baliteke igerilekuak zapatuan, hilaren 11n, zabaltzea publikora.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Mutriku

Infantilak
Zapatua. 11:30. Ipintza
Bergara-Amara Berri
Lehen mailako jubenilak
Zapatua. 16:30. Agorrosin
Bergara-Ilintxa
Neskak
Zapatua. 18:15. Ipintza

ESKUBALOA

Bergara-Zarautz

Kadete neskek
Zapatua. 16:15
Bergara-Urola
Jubenil neskek
Domeka. 11:30. Kiroldegia

SASKIBALOA

Bergara-Beasain

Senior mutilak
Zapatua. 19:00. Kiroldegia

ARETO FUTBOLA

Bergara-Zarautz

Jubenil mutilak
Zapatua. 12:30. Kiroldegia

PILOTA

PROFESIONALAK

Barberito VI.a-Errandonea / Berasaluze VIII.a-Armendariz

Alustiza-Zearra / Titin III.a-Lasa III.a

(binakako txapelketaren finalerdia)

Minguez/Pinedo (banaka)

Bihar, zapatua, 17:00etan
Udal Pilotalekuan
UDABERRIKO TXAPELKETA
Bergara-Aurrera

Jubenilak

Bergara-Aloña Mendi

Seniorrak
Domekan. 12:00etan
Udal Pilotalekuan
DEBA ARROKO TXAPELKETA
Bergara-Antzuola

Eguaztenean, hilak 1,

19:30etatik aurrera

Udal Pilotalekuan

BOLINTXO

KIROLAK

lbargarai 10. 943 76 38 32

%50



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Buya-Soropotoak **Azpeitxi Bildurbarek Mo(ko)lotov**
 10:00: Azpeitxi jatetxea-Mo(ko)lotov
 11:00: Bildurbarek -Patxaran Team

ZAPATUAN KANPOAN

16:30: Irubide Jatetxea-Moskis **Shaktale Moskis**
 17:30: A ze Flaxa-Shaktale

DOMEKAN BARRUAN

16:00: Aterpe-Ufala **Ion autoak Uve bikoitza Patatus La Juve Amoskibar**
 17:00: Ion Autoak-Agiñazpi
 18:00: Ortzí-Uve Bikoitza
 19:00: Patatus-Amoskibar
 20:00: La Juve-Pagomendi

DOMEKAN KANPOAN

09:00: Bar Canalejas-Txipiron **Tom Cat Canalejas P. Bergara Artusamak**
 10:00: Tom Cat Argandolas-Amilotx
 11:00: Errotagain-Artusamak
 12:30: Ari ari- Pinturas Bergara

EMAITZAK

A MULTZOA

Mo(ko)lotov-La Juve	2-3
Etengabe-Azpeitxi jatetxea	11-4
Ari Ari-Irubide jatetxea	0-0
Pagomendi-Pinturas Bergara	4-0

B MULTZOA

Amilotx-Amoskibar	3-4
Mongatxurak-Agirrebeña jatetxea	6-2
Moskis-Sirimiri Eri	3-3
Urrutxurtu-Bayer	2-11

C MULTZOA

Agiñazpi-Soropotoak	3-5
Uve Bikoitza-Agiñazpi	3-0
Torrekoa-Vacalouras	2-6

D MULTZOA

Artusamak-Xurupak	9-3
Fac-Ufala	7-3
Xurupak-Guadalest	1-3
Txipiron-Artusamak	2-1

GORA ETA BEHERA



Bayer, Etengabe, Txipiron

B multzoko liderra, Bayer, 11-2ko emaitzarekin nagusitu zitzaion Urrutxurturi; A multzoan, Etengabek ustekabeaz Azpeitxiri irabazi zion eta D multzoan Txipironen Artusamak taldea menderatu zuen.



P. Bergara, Ari Ari, Irubide, Agiñazpi

A multzoko Ari Ari eta Irubide jatetxearen kontrako partiduan ez zen golik izan eta Pinturas Bergara eta Agiñazpi taldeak ere ez ziren gol bat sartzeko ere gauza izan.

ARGI!

Antolatzaileen oharra

Ligak bigarren itzulera amaitzeko gutxi falta denean, antolatzaileek jakitera eman dutenez, martxoaren 7a izango da fitxaketa berriak egiteko azken eguna. Hortik aurrerako fitxaketak taldearen kanporaketarekin zigturiko dira.

SAILKAPENAK

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	45	16
2. Azpeitxi Jatetxea	33	16
3. Irubide Jatetxea	29	16
4. Sirimiri Eri	24	16
5. Pinturas Bergara	22	16
6. Etengabe	18	16
7. Ari Ari	14	16
8. Moskis	13	16
9. La Juve	12	16
10. Mo(ko)lotov	10	16

B multzoa

	P	J
1. Bayer	39	16
2. Mongatxurak	34	16
3. Amoskibar	31	15
4. Urrutxurtu	26	16
5. Bildurbarek Opel Lam	22	15
6. Patxaran Team	21	15
7. Amilotx	16	15
8. Tom Cat Argandolas	12	15
9. Agirrebeña Jatetxea	11	16
10. Patatus	1	15

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	40	15
2. Ortzí	33	15
3. Shaktale	28	15
4. Uve Bikoitza	22	15
5. Ion Autoak	19	15
6. Buya	16	15
7. Vacalouras	14	16
8. Agiñazpi	13	15
9. Soropotoak	13	15
10. Torrekoa	7	16

D multzoa

	P	J
1. Errotagain	41	15
2. Fac	35	16
3. Guadalest	34	16
4. Bar Canalejas	31	15
5. Artusamak	25	14
6. Xurupak	19	15
7. Txipiron	16	15
8. Komando Piperrak	7	15
9. Aterpe	2	15
10. Ufala	1	16

mahoneroak



URKO AGIRRE
Bergara taldeko atezaina

Gol aukera asko barkakatu genituen, hasierako minutuetan, zapatuan Sestaoren aurka, eta futboleko barkatzen duzunean bada-kizu zer gertatzen den... Lehendabiziko ordulaurdenean ondo jokatu genuen eta markagailuan aurreratzeko bizpahiru aukera huts egin genituen. Atsedendia baino lehen, partiduko jokaldi erabakiorra heldu zen; epaileak gure kontrako penaltia adierazi zuen Anduezak baloia eskuarekin urruntzearen eta niretako ez zen penaltirik izan, berak baloia ikutu baino baloia bere eskuan jo baitzuen.

Jokalari bat gutxiagorekin oso zaila geneukan partidua aurrera ateratzea eta bigarren zatian taldeak egindako desgastea nabaritu zuen. Bigarren penalti bat egin genuen eta hortik aurrera partidua erabakita gelditu zen, beraiek bigarren gola egin eta gero. Zapatuan, UPVren kontra Donostian jokatu beharrekoa, partidua klabea izango da, ondoren Eibar eta Realaren aurka jokatuko baitugu.


Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



Irizar 2

☎ 943 76 14 95

JAUJA
KIROLAK

Otsein Saria

Sestaoren aurka honako jokalaria hauek nabarmendu ditugu:

Ander Berraondo... 3 puntu
Jokin Mendaratz... 2 puntu
Urko Agirre... Puntu 1

Etxeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.

kronika kadete mutilen saskibaloia taldea

Sasoi onari eusten

BERGARA 45

ASKATUAK 38

Bergara: Denis Jimenez (5 puntu), Peru Azkarate (4), Iban Alonso (5), Asier Larrañaga, Jon Beistegi (21) -hasierako boskotea-, Ibai Etxeberria (6), Jokin Biain (2), Aitor Ugarte (2), Isusko Igarza, Ugaitz Eguren eta Iñaki Mondragon.



Argazkian David Urbina entrenatzailea bere jokalariekin.

Bergarako kadeteek jarrera lortzen duten hirugarren garaipena eskuratu zuten domekan, Donostiako Askatuak taldearen aurka. Igoera faseko lehendabiziko hiru partiduak galdu ostean, bergararrak sasoi onean ditugu eta bihar, zapatua, Oñatin, laugarren garaipena

lortzeko itxaropena daukate. David Urbinak entrenatzen duen taldea sailkapeneko seigarren tokian dago eta igoera lortzeko lehen zazpi taldeen artean (17 talde dira guztira) sartu behariko dira liga amaieran. Hori da, hain zuzen ere, maho-

neroen asmoa. Ligako lehen fasean 9. postuan sailkatu ziren Urbinaren mutilak eta orain, datorren urtean, kadeteen lehen mailarako txartela lortzea da lortu beharreko helburua.

Domekako partiduan, lehenbiziko zatian taldeak

ez zuen bere maila onena eman eta atsedendian donostiarrak aurretik ziren markagailuan (17-23). Hala ere, etxekoek markagailuari buelta ematea lortu zuten eta talde osoak lan bikaina egin zuen arren, Beistegi aleroak lortutako 21 puntuak nabarmentzekoak dira. Bigarren zatia hasieran, 13-3ko aldeko partziala lortu zuten etxekoek eta hortik aurrera abantailari eutsi zioten. Hala ere, jaurtiketa librean ohikoa baino punteria eskasagoa azaldu zuten bergararrek; azken minutuetan jaurtitako 12etatik 4 puntu besterik ez zituzten lortu eta donostiarrak markagailuan hurbildu egin ziren. Baina azkenean garaipena etxean geratu zen eta Mariaren Lagundiko kantxara hurbildutakoek Bergararen garaipena ospatu zuten partidu amaieran.

David Urbina pozik dago bere taldea egiten ari den denboraldiarekin eta, kontuan izanda jokalaria gehienak kadeteen lehen urtean ari direla, hurrengo denboraldian taldeak bere mailarik onena emango duela uste du.

AITOR DELARIBERETTE / Snowboardzalea

"Seniorretan maila oso altua dago"

Espainiako snowboard selekzioarekin Italian, Austriar eta Alemanian izan da Aitor Delariberette (19 urte). Fisioterapia ikasten ari da Bartzelonan eta datorren martxoaren 23tik 26ra bitartean, Astunen, Espainiako Snowboard Txapelketan hartuko du parte.

G. Zer moduz selekzioarekin egindako probetan?

E. Orokorrean gaizki, kanpoan maila askoz ere handiagoa dagoelako. Dena den, esperientzia aberasgarria izan da. Nuria Moga selekzionatzaileak deitu ninduen eta ondoen Austriako junior mailako proban ibili nintzen, Enbach hiriko proban bi-

garren sailkatzea lortu nuelako. Seniorrekin ere konpetitu dut baina salto handiegia da hori, orain arte junior mailan konpetitu dudalako.

G. Zein herrialdeetakoak dira onenak?

E. Junior mailan Austriar oso maila ona dago eta bestetan gauzak nahiko parekatuta daude: frantziarrak, suitzarrak... Onena? Niri Mathieu Bozzeto frantziarra gustatzen zait gehien.

G. Espainiako

Txapelketara begira, zein asmo?

E. Ikusi egin behar. Ahal dena egiten ahaleginduko naiz eta laister ekingo diot txapelketa gertatzeari. Zortea ere beharrezkoa izango da.

G. Iaz lesioekin behintzat ez zenuen izan.

E. Ez. Belauneko ligamentuak apurtu nituen eta udan, berriz, bi besoak apurtu nituen Frantziar. Orain dela 15 egun ere sorbalda atera zitzaidan. Ea gauzak aldatzen diren...



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Pisua salgai Zubietan. 943 76 12 61.

S. Lorentzo. 943 76 38 87.

Antzuola. 943 61 29
17/63 52 63 (Rakel).

EROSI

Bergaran etxea erosiko genuke. 943 21 99 02.

Pisua erosiko nuke Zurradon. 943 76 52 31.

Etxebizitza erosiko nuke Bergaran. 943 76 09 99.

Pisu txiki bat erosiko nuke (igogailuduna derrigorrez). 943 76 12 61.

ERRENTAN EMATEKO

Bungalow bat Torreviejan, udan. Hondartzatik gertu. 943 78 14 72.

ETXE KONPARTITUAK

Pisua konpartituko nuke.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

4. LANA

ESKAITZAK

Etzeko lanak, umeak zaindu edo dendari lanak. 636 76 25 70.

Neska, garbiketa lanak egiteko gertu. 943 76 45 02 (M. Karmen).

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Etzeko lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein lanetarako gertu. 943 76 00 24.

22 urteko mutilak lan egingo luke zapatuetan (baserri lanak...). 943 78 26 77 (Arkaitz).

Emakumea goizez lanetarako gertu. 607 326 706.

Etzeko lanak edo plan-txa orduka. 943 76 54 82.

Neska euskalduna goizez lan egiteko gertu. 943 76 23 41.

Txoferra lanerako prest, C eta C-1 gidabaimena eta garraioetarakoa dituen. 943 76 30 34.

Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak

Deitu 667 52 48 98 telefonora (Andres).

2. GARAJEAK

SALDU

Antzuolan, Zurrategin. 943 76 64 00.

Bolu. 2 plaza. 616 049 865.

Antzuola, Kalegoi. Deitu 943 76 47 16 telefonora.

Masterreka (Pertxa azpian). 696 460 406

K. Eleizalde. 943 76 36 34.

Garajea salgai Bolun. Deitu 943 76 19 69 telefonora.

Garajea salgai edo alokairuan. 943 76 22 22.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Zubiaurren. 943 76 23 53.

Garajea salgai San Lorentzon. 943 76 18 01.

Errentan edo salgai Ibargarain. 943 76 20 07.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea hartuko genuke. Deitu 943 76 23 68 telefonora (Maite).

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

Etxabe komertziala salgai edo alokairuan Aranerrekan. 943 76 32 00.

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18 m²) lokalak alokairuan. 606 96 23 80.

Mugertzako gainean 35 m²ko lokalak alokairuan. 943 76 21 49.

Lokala alokairuan Martokon. 943 76 11 13.



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 943 76 20 02

BERGARA

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA

x Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

x Karta eta menu berezien zerbitzua



BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAleta
Tf.: 943 79 24 58

zainduko lituzke.
609 77 01 33 (Asis).

Mutil gaztea informatika lanetarako gertu.
619 15 44 06 (Fran).

Neska bat goizez garbi-
ketak egiteko gertu.
943 76 38 73.

Neska lanerako gertu.
943 76 00 90.

Neska goizez lan egiteko gertu. 943 76 57 81.

ESKAERAK

Neska behar da etxeko lanak eta umeak zaintzeko. 943 76 01 57.

Esperientziadun neska behar da haurra zaintzeko. 943 76 44 10.

Neska behar da etxeko lanak arratsalde orduka egiteko. 943 76 13 53.

Denda orduetan umeak zaindu eta etxeko lanetarako neska euskalduna. 943 76 13 23.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen

ditut. 943 76 45 73.

ESKAERAK

Pertsona bat behar da 11 urteko mutiko bati partikularrak emateko. 943 76 46 49.

6. IBILGAILUAK

SALDU

VW Golf TDI 90. 3 urte. Oso egoera onean. 609 401 918

Iveco Pegaso furgoneta-kamioia (SS-AP). Garraiorako txartel nazionalarekin. 943 76 42 01.

Fiat Tipo 16v. (SS-AM). 943 76 06 53.

Renault 5. (SS-V). 943 76 37 74.

Puch motorra. 30.000 pezeta. 943 76 29 95.

Opel Astra 1.6 GT. 943 76 00 12 (gauzez).

Opel Kadett GSI 16V. Egoera ona. 943 79 75 11 / 98 08 (Mikel).

Ford Escort familiarra (SS-AK) egoera onean. 656 74 49 14.

Kadett 1.4. 630 750 099.

Renault 21 (SS-Z). Deitu 943 76 26 92 telefonora.

Kawasaki Vulcan motorra (500 cc.). 617 76 67 60 / 943 76 27 00.

7. ANIMALIAK

SALDU

Boxer arrazako txakurkumeak. 696 05 73 46.

Txahalak eta bildotsak izozkailuan sartzeko; labeldunak; natural hazita. 689 541 861.

8. DENETARIK

SALDU

Hapro solariuma. Egoera onean. 943 76 51 76.

Imar karro-denda. Egoera eta prezio ona. Deitu 943 76 59 56 telefonora.

Bateria salgai. Merke. 943 76 50 77 (Manu).

366 MH Pentium ordenadorea. 2 GBko disko gorrora, CD eta telebistaren plaka. 943 76 19 16.

Aulkiak eta mahaia. 943 76 46 90.

Jangelako mahaia eta sei aulki. 943 76 34 48.

EROSI

Diskoak, singleak eta LPak erosten ditut. 943 52 65 77.

Terretoa erosiko nuke Bergara inguruan ura eramateko aukerarekin. 943 76 32 14 (18:30etik aurrera).

EMAN

1-7 urte bitarteko umeendako erropa eta bainera, konketa eta komuna opari. 943 76 44 34.

HARTU


Caritasek sukalderako armairuak behar ditu. 943 76 11 98.

GALDU

Loro gris buztangorri batek ihes egin dit. 943 76 26 92.

GT Palomar bizikleta lapurtu didate. 943 76 11 81 (Jon).

Kartera, 3 argazki, Travel Club eta diruarekin. 943 76 53 71 (Ana)



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

PEOI ENKOFRADOREA
Urola erdia. 29111/3

ENPRESA-MEDIKUA
Markina-Ondarroa. 28524/1

OBRA BURUA
Bilbo. 28900/1

GESTIOA ETA INFORMATIKA
Goierri. 28306/1

EKIPO INFORMATIKOEN TEKNIKARIA
Arrasate. 28841/3

INGENIARI TEKNIKOAK
Durangaldea. 27900/4

KOMERTZIAL AUTONOMMOA
Ibaizabal. 28784/1

AHOLKULARIA/KONTSULTARIA
Debabarrena. 28753/1

PEOIAK, 2
Debagioena. 28715/2

INTERNET IRAKASLEA
Debabarrena. 28952/1

ITURGINA
Debabarrena. 28675/5

INTERNET IRAKASLEA
Debagioena. 28953/2

HARRERAGILEA
Debabarrena. 28672/4

PROGRAMATZAILEA
Bilbo. 28200/3

GAS-INSTALATZAILEA
Gernika. 28541/3

SOLDATZAILEA
Gernika-Bermeo. 26859/2

YOGA IRAKASLEA
Bilbo. 28905/2

TELEKOMUNIKAZIO ARLOKO

TENIS MONITOREA
Bilbo ingurua. 28902/1

KOMERTZIALAK, 2
Bilbo. 28707/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



**Matxiategi
Elektragintza
S.L.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA**

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

**Mutil gaztea
behar da
BASERRIKO
LANETARAKO**

943 76 12 66



Iturkintza • Berogintza • Bainuak

Laskurain

Barrenkalea 35, BERGARA.
Tf. 943 76 24 89



ITURRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

Herriko musika taldeak argazkitan

Azken hogei urteotan herriak eman dituen rock taldeen irudiak Pol-Polen

"Bergarako rock-a, bi hamarkada eta arazo bera" izenburupeko argazki erakusketa antolatu dute Seminarioko lokalean entsaiatzen duten herriko zortzi musika taldeek.

Erakusketa hau ehundik gora argazkiz dago osatua, eta bertan, Bergaran egon diren eta gaur egun dauden musika taldeen argazkiak, zein partaide gisa bergararren bat duten taldeenak egongo dira ikusgai. Erakusketa datorren astelehenetik, martxoaren 5era egongo da ikusgai Pol-Pol tabernan.

Erakusketak "Bergarako rock-a, bi hamarkada eta arazo bera" izenburua eramateak badu bere arazoia, izan ere, hirigintza proiektuaren barruan aurreikusita dagoenaren arabera, bota egingo da zortzi musika talde hauek entsaiatzeko erabiltzen duten Seminarioko lokala. Talde hauetako ordezkarien hitzetan, "bi hamarkadatan mugimendu handia egon da herrian musika taldeei dagokienez, eta hori da guk erakuske-



Desagertutako hainbat talderen irudiak ikus daitezke erakusketan. Honako hau Daxkarena da.

tarekin Udalari zein herriari erakutsi nahi dioguna, jaramon egin diezaguten eta entsaiurako lokala jarri". Erakusketak, kronologiaren arabera eta taldeka

antolatu da: Angiolillo, Zaztada edota Daxka, herriko talde antzinakoenetatik Frenopatics edota Fly Shit taldeetaraino iristeko aukera izango da.

Bergarako sorrera eta ekonomia ezagutzen San Joxeperekin

San Joxepe jubilatuen elkarteak Bergarako historiari buruz antolatutako hitzaldi sortaren lehenengoa eskaini zen pasa den asteazkenean Migel Altuna zaharrear.

Hitzaldiko gaia "Bergara eta inguruko aurrehistoria"

izan zen eta Xabier Larrañaga historia irakasleak eskaini zuen. Hitzaldian ehun lagun inguru bildu ziren eta aipatu zikloak datozen hiru asteotan jarraipena izango du; bertan, Bergarako ekonomia eta politika ere landuko dira.



Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

Fran Iturberen musika

JC Perezen "Ikaro" disko berrian

Fran Iturbe musikari bergararak Juan Carlos Perez kantariak otsailaren 29an Baionan aurkeztuko duen bere hirugarren diskoan hartu du parte.

"Ikaro", kantari ondarrutarraren disko berria hamar abestik osatzen dute eta hauetako hiruri Fran Iturbek jarri die musika; "Insert Coin", "Bueltek eman" eta "Blues" kantei, hain zuzen.

Diskoko musika eta hitzak, aurretiaz Maskarada antzerki taldearen "Ikaro" antzezlanerako eginak zituzten eta diskoratzea Fran Iturbek Iruñan duen estudioan gauzatu zen pasa den urtean zehar. Horrez guztiaz gain, Ikaroren figura mitikoa oinarri duen diska honek ekoizpena ere Fran Iturberen ardurapean dago.



Fran Iturbek kolaboratu izan du lehenago ere Juan Carlos Perezekin, orain dela urte batzuetako argazki honetan ikus daitekeen bezala.

erreseinak



Joxean Sagastizabal
Ixabel Multimendiala
Eleberri interaktiboa

Duela urte batzuk Joxean Sagastizabalen "Kutsidazu bidea, Ixabel" eleberri arrakastatsuen bertsio moderno eta interaktibo bat egin nahi izan du Aurten Bai Fundazioak, erabiltzailearen parte hartzea bultzatuz, euskara ikasten dihardutenentzat eta euskaldun berrientzat bereziki egokia dena, era atsegina batean euskara praktikatzeko modu berri bat dakarkigu eta. Liburua irakurri barik, eleberria iruditan ikusteko aukera paregabea eskaintzen digu proposamen berritzaile honekin.

-Aurten Bai Fundazioa. 2.500 PTA.



Mikel Telleria
Deklarazioa
Pop

Musikaren munduan urte asko daraman arren, hainbat maketa plazaratu ostean, bere lehendabiziko disko du honako hau Mikel Telleria idiaz baldarrak. Bere kitarra lagun zuela, bera bakarrik hasi zen "rhythm and blues" a jorratzen, baina poliki-poliki 5 laguneko taldea osatu dute. Kantautore dugu Telleria, eta berak idatzi eta musikatutako 12 abestik osatzen dute "Deklarazioa" diska. Kanta guztietan nabari zaio bai Ruper Ordorika eta bai Van Morrison, Bruce Springsteen, Bob Dylan eta Lou Reed eragina, autoreak berak ere aitortzen duen bezala.

-Gaztelupeko Hotsak. 2.000 PTA.

bergara ezagutzen

lehiaketa

Hirugarren norgehiagoka eta lehiaketa aurrera

Jokatu da, dagoeneko, "Bergara ezagutzen" lehiaketako bigarren jardunaldia. Petu-petuan eta Jakintsuak taldeei heldu zitzaizen ostiralean txanda, eta Petu-petuan taldeak Bergara nahiko ondo ezagutzen duela erakutsi zuten, izan ere, bera da une honetan sailkapenean buru.

Honekin guztiarekin, kontuan izan behar da baita ere, oraindik bi norgehiagoka baino ez direla izan eta izena eman duten gainontzeko lau taldeek estreinatua gabe darraitela. Gaur, Asmaizu eta Misfits lehiatuko dira, ea zer gertatzen den.

SAILKAPEN OROKORRA:

PETU-PETUAN..... 322 puntu

JAKINTSUAK..... 215 puntu

AZKARRAK..... 189 puntu

JOTAPURTU..... 144 puntu

ASTE HONETAKO

LEHIAKIDEAK:

ASMAIZU ETA MISFITS

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artakale 6 Tf.: 943 76 13 29

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrek 13 behea ☎ 943 76 55 00

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMIA

Ezker eskuma

1. Zuberoako ibai nagusia. 2. Gauzak gordetzen diren lekuak. 3. Buka. Opila. 4. Gainazal bati zoladura jarri. 1998an. 5. Edo. Laztana, fereka. Tona. 6. Lortzearen ondorioa. Urrea. 7. Zilarra. Kontsonante bikoitza. Interjekzioa. 8. Elkarrekin. Errepikatuz, gorotza. 9. Kanpo. Multzo egituratua. 10. Barazki-mota. Haiek.

Goitik behera

1. Alabaizunak. 2. Funtzio berdina duten gauzei balio berdina eman. 3. Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mendialdea. Kontsonantea. Bat. 4. Zezen zikiratua. Premia. 5. Tantalioa. Urde. 6. Zeuzkan. Bete. 7. Gabarra. Norat atzizkia. Istu. 8. Emakume izena. Gizon izena. 9. Eguna. Gipuzkoako herria. 10. Ikatz bihurtua. Nor, pluralean.

Soluzioa

10. Ikatzua. Ak.
9. Data Arama.
7. Ala. Bat. Tu. 8. Nurra. Iker.
5. Ta. Txerri. 6. Ztuen. Ase.
3. Aralar. 1. 4. Ydia. Presa.
1. Ugazlabak. 2. Homologatu.
Goitik behera
9. At Sistema. 10. Kua Eura.
7. Ag. R. Tirai. 8. Batera. Ka.
5. Ala. Xera. 1. 6. Lorpena. Au.
3. Ama. Tarta. 4. Zolat. laz.
1. Uhatzandi. 2. Gordailuak.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereziabar




Non daude jarri berri dituzten bi farola hauek?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Alemaniako zein lapiko enpresa erosi berri du Lacorrek?
A- Wagner
B- Mozart
C- Siemens
2. Nor da Bergarako Gazte Informazio Guneko arduraduna?
A- Rufina Olasagasti
B- Mainer Sedano
C- Mainer Egues
3. Zeinekin jokatu du Aitor Oregik 2. mailako pilota txapelketako finala?
A- Etzanizekin
B- Muruamendiarazekin
C- Telleriarekin



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketak bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Eulalia Iturberentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketak bonoa. Zorionak Eulaliari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Arginzain txokoa** Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Berberana
ardo beltz gaztea, 3/4 l.
229 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Xabier Alberdi, "Sato", dantzarixa, mendizalia eta kirolzalia da. Arabako Izan elkartearentzat eitten dau lan, adin txikikoentzako babes zentru batean, hezitzaile moduan. Bestalde, Bolu gimnasioaren arduradunetako bat ere bada.

Zergatik "Sato"?

Satorretxetik dator; familia guztiari deitzen doskue Satorretxe.

Zelatan gimnasio bat?

Ni beti izan naiz kirolzalia; mendixan, piraguan, dantzan, eskiatzen...ibilittakua naiz.

Ez ete jako inportantzia gehixegi emoten gorputzari?

Bai eta ez. Bai, estetikiari inportantzia gehixegi emoten jakolako; baina deporte gehitxua oin biharko giñuke.

Kirolik gustokoena ikusteko?

Rugbyxa.

Eta praktikatzeko?

Mendixa.

Kirolaririk gustokoena?

Sekula ez naiz mitomanua izan.

Gimnasia emakumiak ala gizonezkuak juten dira gehixao?

Antzera.

Juergazalia zara?

Bai, asko.

Denbora librian, gimnasia ala juergia?

Danetik pixkat, baina gimnasia baino gehixao mendixa.

Txikitan zer izan nahi ziñuan?

Ezebez, eta oin be ez dakit ze izan nahi doten.

Telebista saiorik gustokoena?

Ez dot telebisiñorik ikusten.

Irakurtzeko zaletasunik badaukazu?

Euki neban, oin ez hainbeste.

Xabier Alberdi "Satorretxe"

Irakurri dozun azken liburua?

"La mujer habitada", Gioconda Bellirena.

Idazlerik gogokoena?

Eskura jausten jatena irakurtzen dot.

Amets bat?

Asko; bidaia luze bat egittia, lanakin lotuta be amets asko dauzkat...

Injustizia bat?

Asko dare. Gainera, nere lanian asko ikusten dittut egunero: abuso sexualak eta tratu txarrak jasotzen dittuen umiak...

Mania bat?

Gehixegiko ordenaua naiz.

Gaba ala eguna?

Segun zetarako.

Nahi adina diru izanez gero, zer?

Zati bat neretako erabiliko nuke, biaje luze bat egitteko. Eta gainontzekua besteei laguntzeko.

Beti egin nahi izan duzun zerbait, baina oraindik egin ez duzuna?


Biaje luze bat egittia Himalaya aldera, Estatu Batuetara...

Bergarako tokirik polittena?


Inguruko mendixak.

Eta mundukua?

Euskal Herrixa bera, ezagutzen dotelako, baina nik ezagutzen ez ditudan toki politt asko egongo da munduan.



Kizkur



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

Gracian

usaindegia, mertzeria eta...

**in duterietarako
osagarriak!**

Bidekurutzeta 6
Tf: 943 76 10 25



Gozogintzan
aintzindari.



Labegaraietan, 1968 aldera

Labegaraieta auzoko neska-mutil koadrila agertzen da aste honetako erretratu zaharrean. Argazkia orain dela 32 bat aterata dago, 1968 aldera eta bertan agertzen direnak auzotarrak ditugu. Udaberri-uda partean ateratako erretratua dela dirudi, hainbat mutiko praka motzetan agertzen direlako eta neskak ere udako jantziekin daudelako. Argazkia atera zenetik aldaketa ugari jaso ditu Labegaraieta auzoak baina koadrilaren atzealdean oraindik zabalik dagoen Agirrebeña jatetxea ikus daiteke. Eskola egunak amaituta, lagunartean jolasean aritzeko sasoa helduko zitzaien argazkikoei eta ziur primeran pasako zutela elkarrekin. Bertan agertzen diren gehienak Amasorrainda-

rrak ditugu eta argazkia Txomin Amasorrainek ateratakoa da. Hara hor zeintzuk diren argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Ramon Amasorrain, Mari Karmen Amasorrain, Xabier Ugalde (Mari Karmenek besoetan duena), Juanje Amasorrain, Fernando Amasorrain, Rafa Amasorrain eta Jose Angel Amasorrain.

Aurrerago: Elisa Amasorrain eta Euse Amasorrain.

Makurtuta: Alex Calvo, Julian Ugalde, Mari Jose Garamendi eta Pili Azkarate.

Argazkia: Tere Garamendi

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai 2
943 6 51 65



Zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21




MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



badator, badator
udaberria!



Barrenkalea 35. Tf. 943 76 03 98
Irala 5. 943 76 37 41

ARREGI AROZTEGIA



SUKALDEAK

Arozlan mekanikoak

Ateak

Horma armairuak

Tarimak eta Parketak

Neoprenozko juntadun

egurrezko leihoak


PVCzko leihoak



TAILERRA: Urteaga 20. 943 76 11 73

ERAKUSKETA: Bidekurutzeta 38. 943 76 31 03





Zuretzat,
bidalketa sistema
fidagarri bat edukitzea
ez da aukerarik garrantzitsuena.

Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN
MERKATURATZEA NAHI DUZU.
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK
BETE BEHAR DITUZU,
ALDI BEREAN HAUEK ERE
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.
BIDALKETA,
ZEURE NAHIAREN ARABERA
EGITEA ESKATZEN DUZU,
BESTERIK EZ.
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK
GARAIZ BETE DITZAZUN.
HORRELAKO XEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEA
ATEZ ATE BANATZEN,
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



GUIPUZCOANA

Paketeen Garraio eta Banaketa



Beti garaiz.